



# 0 - 3 ZIKLOA 2 URTEKOEN GELAK

Haur Hezkuntza

BILDUMA: "CURRICULUM-MATERIALAK"  
COLECCIÓN "MATERIALES CURRICULARES"

*haur eta lehen hezkuntza  
educación infantil y primaria*

EUSKO JAURLANITZA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
EDUCACIÓN INFANTIL

DEPARTAMENTO PÚBLICO DE  
EDUCACIÓN INFANTIL

# 3

**HAUR HEZKUNTZAKO 0-3 ZIKLOA**

**2 URTEKOEN GELAK**

**Haur hezikuntza 0-3 zikloa** : 2 urtekoen gutxiak : haur hezikuntza / [María Pardo ... et al. ; koordinatzailea, Alicia Salas ; koordinatzailea, María Pardo]. -1. argit. - Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1999

or. : orr. - (Material curricularak. Haur eta lehen hezikuntza ; 3)

Berri, gaitza, berriz atari eta or. preloekin, testu berri beharke gain gaztelaniaz: El ciclo 0-3 : las aulas de 3 años : educación infantil

ISBN 84-457-1462-7

I. Haur hezikuntza - Programazioa. I. Pardo, María. III. Euzkadi. Hezikuntza. Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Inerbitza (Castelania). IV. Bilboko 373.213.4

Material hau Hezikuntza Sailak Haur Hezikuntza Batzordearekin bateraileak jarraitzen ari diren dagok, ondoren aipatzen diren pertsonak agintek diralarik:

María Pardo, Haur Hezikuntzako Programazioa Koordinatzailea I.D.Ca.

Pilar Hernández, Formakuntzarako aholkularia Gasteizko 2. P.A.Tean.

M<sup>o</sup> Carmen Huarte, Formakuntzarako aholkularia Otraceluko P.A.Tean.

Cristina Flores, Formakuntzarako aholkularia Galdakao-Zaratamoko P.A.Tean.

Dolores Tejero, Formakuntzarako aholkularia Oteizako P.A.Tean.

Lorena Irujo, Formakuntzarako aholkularia Lasarteko P.A.Tean.

Koro Lete, Formakuntzarako aholkularia Eibarreko P.A.Tean.

Maira Pérez, Formakuntzarako aholkularia Eibarreko P.A.Tean.

Kalabonburua: Alicia Salas.

Koordinatzailea: María Pardo.

Bilbo, 1999ko azaroa.

Argitaratzea: 1.a, 1999ko azaroa

Ale- Kopurua: 300

© Euzkadi Autonomi Erkidegoko Administrazioa  
Hezikuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: [www.euzkadi.net](http://www.euzkadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argitalpenaren arduradunak: Euzkadi Herriko Curriculuma Erateko Institutua  
Antakortza, 1 kalea - 48015 Bilbo

Inprimaketa: Lunepi, S.A.  
Calle de Lantegui, 16 - 48001 Bilbo

ISBN: 84-457-1462-7

Lagunen Gostailua: VI-65199

## **AURKEZPENA**

Haur Hezkuntzaren garrantzia egunetik egunera nabarmenagoa da hezkuntzaren ikuspegitik zein gizartearen ikuspegitik. Orik 3 urtera bitartekoen zikloa etapa honen barruan integratzea eta etapa hau osorik hezkuntza-sisteman integratzea funtsezkoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoan oso esanguratsuak dira Haur Hezkuntzaren ezarpen-prozesua eta gero eta adin txikiagoa duten haurren eskolatzeta, hain zuzen ere gero eta ugariagoa dena. Arreta berezia eskaini behar zaie Haur Hezkuntzako ikastetxeetan ia sortu-berriak diren 2 urtekoen gelei.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 2 urteko haurrak sartzeak irakaskuntza-jarraibide batzuk zehaztu beharra eragin du. Hauek, adinaren berezko ezaugarriak errespetatuz eta koherentzia profesionalaren eta hezkuntza-asmoaren irizpideetatik abiatuz, beren gaitasunak garatzea ahalbidetu behar diete ikasleei.

Errealitate honi behar bezala erantzuteko, haur-eskolen antolamenduak bere planteamenduak malgutu behar ditu taldeen antolaketari, hezkuntza-proposamenei, ordutegiei eta abarri buruzko erabakiak hartzeko garaian. Malgutasun horrek, pedagogi irizpideak egokituz, Haur Hezkuntza izaera profesionalaz hornituko du, alegia hezkuntza-maila honek bere egiturari 2 urtekoen gelak barne hartu aurretik jadanik bazuen izaera profesionalaz.

Asmo teoriko hauei eta beste batzuei forma praktikoa eman ahal izateko, ikastetxeek, guztien artean, adin hauei buruzko gogoeta egin behar dute. Dokumentu honen helburua gogoeta horretarako lagungarri izatea da, horretarako eztabaida-bideak ahalbidetuz eta erabaki eraginkorrak hartzen lagunduko duten irizpideak bultzatuz.

## **PEDAGOGI BERRIKUNTZARAKO ZUZENDARIA**

## **AURKIBIDEA.**

<b>SARRERA.</b> .....	7
<b>1- 0-TIK 3 URTERA BITARTEKOEN ZIKLOA</b> .....	9
<b>2- BI URTEKO HAURRAK</b> .....	11
<b>3- EDUKIEN HEZKUNTZA-TRATAERA</b> .....	15
3.1- 0tik 3 urtera bitarteko zikloa eta globalizazioa .....	15
3.2- Helburuak eta edukiak zehazteko eta hezkuntzaren esku-hartzerako orientabideak .....	17
3.2.1- NORTASUNA ETA AUTONOMIA PERTSONALA .....	17
3.2.1.1- Gorputza eta norberaren nortasuna .....	17
3.2.1.2- Jolasa eta mugimendua .....	18
3.2.1.3- Autonomia eguneroko bizitzan .....	20
3.2.1.4- Osasuna eta ongizatea .....	20
3.2.2- INGURU FISIKOA ETA SOZIALA .....	22
3.2.2.1- Famili eta eskola-ingurunea .....	22
3.2.2.2- Gizarte-ingurunea eta -bizitza .....	23
3.2.2.3- Ingurune naturala .....	25
3.2.3- KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIKAPENA .....	26
3.2.3.1- Ahozko hizkuntza .....	26
3.2.3.2- Musika-adierazpena .....	28
3.2.3.3- Gorputz-adierazpena eta -komunikazioa .....	29
3.2.3.4- Adierazpen plastikoa eta bisuala .....	31
3.2.3.5- Matematika-hizkuntza .....	33
3.3- Ebaluazioa .....	34
3.3.1- Zer ebaluatu .....	35
<b>4- HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK BI URTEKOEN GELETAN</b> .....	39
<b>5- HIZKUNTZAREN TRATAERA</b> .....	41
<b>6- GARRANTZI BEREZIA DUTEN UNEAK</b> .....	45
6.1- EGOKITZEKO ALDIA .....	45
6.1.1- Hezkuntza-erantzunak .....	48
6.2- ESFINTERREN KONTROLA .....	49
<b>7- IRAKATSI ETA IKASTEKO GIROAREN ANTOLAMENDUA</b> .....	53
7.1- ESPAZIOEN ETA MATERIALEN ANTOLAMENDUA .....	53
7.1.1- Espazio komunak .....	55
7.1.2- Gelako espazioak .....	58
7.2- DENBOREN ANTOLAMENDUA .....	66
7.2.1- Ikastetxeko ordutegia .....	66
7.2.2- Bi urtekoen gelako ordutegia .....	68
7.2.2.1- Jatorduak .....	70
7.2.2.2- Loa eta atsedena .....	71
7.2.2.3- Eguneroko iharduerak .....	72
7.2.2.4- Aldizkako iharduerak .....	73
7.3- TALDEEN ANTOLAMENDUA .....	74
<b>8- IRAKASLEEN FUNTZIOA</b> .....	75

<b>9- IKASTETXEAREN FUNTZIOA.....</b>	<b>77</b>
<b>10- FAMILIAREN ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANAK.....</b>	<b>79</b>
<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>81</b>

## SARRERA.

Haur Hezkuntzaren helburu nagusia da gaitasun indibidualak modu orekatuan eta ahalik eta gehien garatzea, horrela haur bakoitzari nortasunaren eta autonomiaren garapen-prozesuetan eta gizarteratze-prozesuetan aurrera egiten lagundu ahal izateko. Hau helburutzat harturik, hezkuntza-etapa honek ikasleen artean izan daitezkeen desberdintasunak aurreikusi eta konpentsatzeaz arduratu behar du nagusiki; desberdintasun horiek sozialak, ekonomikoak eta kulturalak izan daitezke, bai eta garapenean izandako arazo eta nahasteek sortutakoak ere.

Etaparen helburuen bitartez garatutako xede hau asmo jakin batekin lortu behar da. Hori lortzera bideratutako irakatsi eta ikasteko prozesua optimizatzeko modua, hezkuntzaren esku-hartze egokia izan daiteke.

Etaparen xedeak, irakatsi eta ikasteko prozesuaren indibidualizazioak eta adin honetako haurrek hobeto ikasteko moduari buruzko teoriak ezartzen dute esparru teorikoa, prozesu hau optimizatu dadin gelan hartu behar diren erabakiak zehaztuko dituen.

Gogoeta honetan kontuan hartu behar dira arian-arian sortzen diren, prozesu kognitiboak, afektiboak, erlazionalak eta mugimenezkoak eta eskola-eremuan iharduteko modua, hauek globalki eta modu orekatuan suspertzeko, horietako batzuetan antzeman daitezkeen hutsuneak konpentsatuz.

Nortasuna eta autonomia bereganatu eta garatzeko baliabide gisa mugimen-iharduerak duten garrantzia eta balioa direla-eta, esku hartzeko estrategiak diseinatu behar dira mugimen-gaitasunez gain pertsonalak, afektiboak eta erlazionalak ere landu eta garatzeko tresna gisa.

Ikaskuntzak egitura kognitiboa aldatzea bideratu behar du, ikasten jarraitzea ahalbidetuko duten ezagutzak sortuz.

Ikaskuntza psikologikoki egituratzeko modu gisa ulertutako globalizazioak lanaren jarraibidea markatzen du: honek ikasleek ikasteko duten modua hartu behar du abiapuntutzat eta irakasteko modua berregituratu beharra eragiten du. Ondorioz, bi alderdi hauek lotura koherentea izan behar dute.

Curriculumaren antolamendu koherentea osatuko duten beste erabaki batzuk izango dira hezkuntza-ingurunearen antolamendua ahalbidetuko duten irizpide bateratuak eta teoria bidez justifikatuak hartzea, baliabide materialak eta giza baliabideak aukeratzea eta hauek antolatzea.

Garrantzi berezia du irakatsi eta ikasteko prozesuak ebaluatzeko moduak. Horrela bada, gogoeta egin behar da, behaketan oinarrituz, gelako lanaren islada eta gida izango diren ebaluazio-irizpideak lantzeko premiaz.

Garapen kognitiboarekin erlazionatutako prozesu gisa hizkuntzaren arloak duen garrantzia eta gizarte honen errealitate elebiduna direla-eta, bi hizkuntzetako komunikazio-gaitasunak bereganatu eta garatzeko moduan sakondu behar da. Hezkuntza elebidunaren oinarri psikopedagogikoak eta soziokulturalak ezagutzea funtsezkoa da, prozesu hau ahalbidetu eta optimizatuko duten antolamendu-proposamenak taldean adostuz. Horrez gain, premiazkoa da, ikasleen komunikazio-gaitasunen garapena bi hizkuntzetan sustatzeko, estrategia metodologiko egokiak ezartzea.

Testu hau irudiztatzen duten argazkiak Arrankudiaga Herri Ikastetxeari, Unkina Herri Ikastetxeari eta San Esteban Haur Eskolari dagozkie.

## **1- 0-TIK 3 URTERA BITARTEKOEN ZIKLOA.**

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak (LOGSE), 0tik 6 urtera bitarteko haur-etaparen hezkuntza-onarpena barne hartzen du, bi ziklotan egituratuz: lehenengoak 0tik 3 urtera bitarteko aldia hartzen du eta bigarrenak 3-tik 6 urtera bitartekoa.

Banaketa hau hezkuntza-eskaintzaren egitura- eta antolamendu- arrazoi onorioa da eta ez arrazoi psikoebolutiboena. Haurren garapena prozesu jarraia da eta ez da erraza, alderdi zehatz batzuetan izan ezik, bertan argi eta garbi bereizitako uneak mugatzea, haur bakoitzak berezko eboluzioa duelarik.

Idea honek eboluzio-irizpide itxiak eta estandarizatuak ezartzea zaila eta desegokia dela aitortzera garamatza. Halere, adin bakoitzak ezaugarri psikoebolutibo espezifikoak ditu eta hauek antolamendu-desberdinetan adierazi beharko dira. Hau, gainera, profesional bakoitzak eta ikastetxe bakoitzak bere gain hartzen eta zehazten dituen hezkuntza-asmoen eta ikuskera teorikoaren arabera izango da.

Haur-eskola “eskolan” sartzeko prestakuntza gisa sortu zen eta haurrei “benetako” ezagutzara hurbiltzea ahalbidetuko zieten trebetasun jakin batzuez hornitzea zen bere funtzioa. 0tik 3 urtera bitarteko haur-eskolari esleitutako funtzioak garrantzi txikiagoa zuen: bere funtzioa batez ere soziala zen, hain zuzen ere familiei beren seme-alabak zaintzen laguntzea.

Arian-arian, gauzak ulertzeko modu hau aldatu egin da eta, gizartearen garapenaren arabera eta gure geletako errealitatearen behaketaren arabera, eremu berriak eta interes berriak zehaztu dira.

Eboluzio hau ez da duela gutxi hasia, aitzitik, aspaldi hasi zen eta geletan gertatutako aldaketak jadanik, ondorioak ateratzea eta guztion gogoetatik ikastea ahalbidetzeaz gain, profesionalki egiaztatutako zenbait gai baieztatzeak aukera ematen digu.

Aztertu beharreko lehenengo gaia aldi honek pertsona bakoitzaren bizitzan duen garrantziari dagokio. Bizitzako beste etapetan ez dira honetan bezainbeste alor menperatzen. Adin honetako haurrak etengabe ikasten, mundua ulertzeko etengabe begiratzen ari direla dirudi. Errealitate hau aprobetxatzen jakin behar da, ezagutzeko gogo hau errespetatu ahal izateko eta hazteko beharrezkoa den iharduera denon artean burutu eta sustatu ahal izateko.

Haur-eskolaren helburuak mundu afektiboari, harremanen munduari eta ezagutzaren munduari dagozkie.

Adin hauetako haurrek etxean edo kalean ikasten dutenean, ez dute gogoeta intelektual baten bidez ez eta ikas dezaten programatutako iharduereen bitartez ere egiten; ikasteko interesa edo aukera dutelako ikasten dute. Ikaskuntza hori gidatu, bertan parte hartu eta positiboki baloratzen duen pertsona heldu baten laguntzak prozesua eta emaitzak optimizatuko ditu. Hori guztia dela-eta:

**0tik 3 urtera bitarteko zikloaren helburua da haur bakoitzarengan nortasun sano bat ahalbidetu, sustatu eta bultzatzea.**

Nortasun sano baten garapena ez da haur bakoitzaren gaitasun- eta ikaskuntza-zeregin individual bat bakarrik, aitzitik, funtsean ingurune hezkuntza-estimuluen antolamendu-zeregin da. Ahalbidetzeak giro egoki bat sortzea eskatzen du. Sustatzeak asmoekin bat datorren



jarrera bat hartzea eskatzen du. Bultzatzeak haur-nortasunaren eremu guztietan hezkuntzaren esku-hartzea diseinatzea eskatzen du: sentimendua, harremanak, adimena.

Otik 3 urtera bitartekoen zikloa ondokoak lortzera bideratuta egongo da:

- 1- Haurraren NIa indartzea, bere bizitza indibiduala aberastuz.
- 2- Bere bizitza erlazionala bultzatzea.

Alderdi hauen garapen egokiak, beren gaitasun kognitiboak egoki garatzen lagunduko die.

Eboluzionatu ahal izateko giro jakin bat behar da. Ikasteko behar den tentsio kognitiboak, ikaskuntza hau sustatu eta errespetatzen duen gela batean premiazkoak diren lasaitasun eta segurtasun afektiboak eskatzen ditu. Beraz, irakasleek haurrei entzutea eta haur-munduarekiko enpatia izatea ahalbidetuko duten ezaugarriak izan behar dituzte.

Gure lanbide-iharduerak eskola-eremuan zehazten diren arren, ez dugu ahaztu behar 0, 1 eta 2 urteko haurren bizitzako testuinguruak **familia eta eskola** direla.

Ez dugu gurasoentzat ihardun behar, ez eta hauek gure erabakietan parte hartzera bultzatu behar ere. Gure ihardueran **gurasoekin** aritu behar dugu. Lankidetzak hau horrela ulertzen badugu, irakasleek ematen duten informazioa beti onena eta garrantzitsua ez dela onartzen dugu eta, era berean, bere abiapuntua haurrek behar duten eta eguneko 24 orduak hartu behar dituen helduen iharduera koherente bat dela ere onartzen dugu.

Familiak eta irakasleek, hots, hezitzaileek, hezkuntza-politika bat garatuko dute elkarrekin, alegia haurri bizi, bizitzaz gozaten, azken batean, bizitzeko artean arrakasta izaten utziko dion hezkuntza-politika bat garatuko dute.

**Azaldutako iharduera-asmoak islatzen dituen giro baten diseinua, haurraren bizitzan garrantzia duten helduek eskainitako ereduak eta beren jarreraren ondorioz jabetzea izango dira, ziklo honetan, gure helburua lortzea erraztuko duten faktore garrantzitsuenak.**

## **2- BI URTEKO HAURRAK.**

Bi urteko haur batengan pentsatzen dugunean, oro har, burura datorkigun lehenengo gauza bere begirada da, bere keinuak, munduarekiko eta besteekiko duen jarrera. Bere bizitza sentitzen eta pentsatzen duenaren inguruan dago antolatuta eta inguruneak ematen dizkion erantzunak ditu abiapuntutzat.

### Argazki 1

Elkarreragin honetatik abiatuz, besteak eta bere burua ulertzen hasiko da, ebaluzio eta hazkuntza pertsonaleko prozesu baten barruan.

Truke afektiboa premiazkoa da adin hauen garapenean, baina, jadanik adierazi dugunez, afektibotasunak ez du bakarrik eboluzionatzen, aitzitik, beste lorpen pertsonal, sozial eta intelektual batzuekin erlazionatuta dago. Hauek guztiek osatzen dute adin hauen hezkuntza-mundua.

Haurrak etengabe bere mundu afektiboa erakusten du menpekotasuneko, lankidetzako, beldurreko, larritasuneko, segurtasuneko, segurtasun-gabeziako eta abarreko adierazpenen bitartez. Pertsona heldu orekatu eta lasai baten, errespetatzen eta itxaroten dakien baten, erantzunak haurraren jarrera egokituko du eta beharrezkoa duen lasaitasuna emango dio, bere mundutik irten eta besteekiko eta ikaskuntzarekiko interesa izan dezan.

Mundu afektiboa, batez ere nortasun eta autonomia pertsonalen eremuko hezkuntza-norabideen bitartez garatzen dena, adin hauetako hezkuntzaren benetako interes-gunea da. Honek iharduera zehatzetan burututako ekintza zehatzetatik abiatuz hartzen du zentzua. Zein dira iharduera horiek?

Haur-iharduera garrantzitsu bat mugimendua da. Une honetan egiten diren **mugimen-eta zentzumen-aurrerapenak** harrigarriak eta erabakiorrak dira, beste arrazoi batzuen artean, kanpoko mundurako sarbidea erraztuko dietelako. Honen ondorioz, beren interesen eta ekintzen esparrua zabaldu egingo da.

Mugimenarekin esperimentatzeko behar handia sentitzen dute: asmatu, aurkitu, saltatu, mugitu eta estropozo egiten dute, beren mugimenduak gero eta zehatzagoak dira, baina baldarrak izan daitezke eta, batzuetan, “gogaikarriak” dira koordinazio berriak ezartzeko prozesu horretan.

Adimen-garapenaren eta mugimen-garapenaren arteko elkar-menpekotasuna oso garrantzitsua da adin honetan. Ikasten duen guztia keinu edo mugimendu batez laguntzen duela diruidi. Hau argi eta garbi ikusten da hizkuntzaren erabileran, horrela, sarritan mugimendu bakoitza edo mugimen-gaitasun bakoitza hitz edo esaldi batek indartzen du.

Musikaltasuna garrantzitsua da bere bizitzan, sarritan esaldiak kantatu egiten ditu. Entzutea atsegin du, hizkuntzagatik eta soinuengatik ere. Entzunez hitzen zentzua ikasten du, horregatik oso gustokoak ditu famili ipuinak eta ezagunak dituenak; izan ere, hauen errepikapenaren bitartez berretsi edo zuzendu egiten ditu hizkuntzari buruz dituen hipotesiak. Gertakari esanguratsuentzat oroimen ona izaten duenez, berehala ohartzen da ezagutzen duen ipuin bateko esaldi bat aldatzen denean, eta hala adierazten du.

Bere mugimen- eta zentzumen-ahalbideak etengabe aztertzen ditu eta, hauen bitartez, bere burua ezagutzen du bi alderdiri dagokienez: bere ekintzen ondorioa eta bere esperimentazioen arrakasta edo hutsegitea. Horregatik haurrak guk jaramon egitea nahi du, bere lorpenen lekuko izan gaitezen. Horrela, bere baliabideetan konfiantza izatea lortuko du, bere autonomiaren eta bere ekimenaren garapen egokiaren premiazko oinarri gisa; hau da, lortu behar duen sentimendu horren premiazko oinarri gisa. Hau lortzeko, norberak bere burua baloratu behar du, hazkuntza-prozesuak planteatzen dituen ikaskuntzei eta egoerei aurre egiteko gai sentituz.

Zentzu honetan garrantzi berezia hartzen du **jolasak**, gorputzaren eskema egituratzen eta finkatzen eta beren buruaren ikuspegi zehatza lortzen laguntzen baitie. Era berean jolasak, garapen-faktore gisa, haurrak ekimenak izateko eta hauek gizarte-esparru baten barruan egituratzeko gai direla ohar daitezen laguntzen du.

Haurrek jolasteko beharra dute, jolastuz mundua, beren burua eta besteak ezagutzen dituzte-eta. Adin honetan jolasa iharduera egituratzailea da. Objektuen manipulazioaren bitartez eta besteekiko harremanaren bidez informazioa lortzen dute, eta informazio honek inguruan dutenari buruz, gauzei eta besteei buruz, lantzen dituzten kontzeptuak aldatzen laguntzen die. Hau ibilbide ideala da hazteko eta ikasteko prozesuan.

Jolasa plangintza esplizitu bat behar duen iharduera serioa da. Iharduera honetan irakaslearen funtzioa eta bere esku-hartzearen formak eta uneak identifikatu eta analizatu behar dira; horrela, gelan erabiltzeko lan-tresna baliagarri bat izan daiteke.

Mugimenaren eremuko lehenengo lorpenak jolasaren bidez perfektionatzen dira. Haurrak bere ekintza planifikatzen, asmo baten menpe jartzen, ikasten du eta, batez ere jolas sinbolikoaren bitartez, gerta daitekeena edo gertatu ezin dena irudikatzen ikasten du. Jolasaren eta irudikapen-gaitasunaren garapenaren arteko lotura estu honek eta gaitasun honen eta garapen pertsonal eta kognitiboaren arteko loturak ibilbide paraleloa dute, nagusiki hizkuntzaren garapenaren bitartez adierazten den ibilbidea hain zuzen ere.

**Hizkuntzaren** lehen oinarria benetako zentzumen- eta mugimen-jolas batek osatzen du: soinuak eginez jolasean ibiltzen da eta, arian-arian, esanahien espermentazioaren eta negoziazioaren bidez bere komunikazio-kodea lantzen du. Hurrez arduratuz, haiekin jolastuz, hitz eginez eta esanahi horiek beraiei azalduz, bide hori laburtzen eta behar bezala ibiltzen laguntzen diegu. Irakaskuntza-iharduera honetan afektibotasunik ez izateak, neurri batean, hizkuntzaren garapena atzeratzea edo hau urria izatea eragin dezake. Hizkuntzak, kontaktu- eta adierazpen-bidea denak, kontaktu eta truke afektiboa inplikatzeko du.

Haurrak 2 urte dituenan, ikusten duen guztiari buruzko galderak egiten dizkie bure buruari eta besteei. Bere hiztegia hedatzeko premia du eta inguruko mundua ezagutzeko eta bertan kokatzeko premia du. “Zergatik” galdetzen duenean bere asmoa erantzun objektiboa ezagutzeko baino zabalagoa da eta, bestalde, sarritan ez luke erantzun hori ulertuko. Bere asmoa galderaren eta bere interesen artean izan daitekeen erlazioa ezagutzeko da. Galdera horren azpian ondokoa dagoela esan dezakegu: “zertarako balio du, ona edo txarra da, horri dagokionez zer gerta dakidake niri”.

Haur hauek bakarrik hitz egiten dute, bakarrik eta gauzeekin jolasten direnean hitz egiten dute eta... besteekin hitz egiten dute. Lan-eremu honetan iharduera planifikatuak, gainera, haurrek besteen ikuspuntuak uler ditzaten laguntzen du, eta hau berezko duten egozentrismoa pixkanaka baztertzen laguntzeko modu bat da. Adin honetan oraindik ezin dute ulertu beren ikuspuntuaz gain beste asko ere egon daitezkeela eta mundua beren premiak eta gurariak berehala asetzen dituen baina zerbait gehiago dela.

Ekintza hauek **afektibotasunaren** eremuan eboluzionatzen ere lagunduko diete, itzarotearen garrantzia eta beharra ulertzea, beren penak eta pozak erlatibizatzea eta hori guztia bizitza-jolasaren zati bat dela ulertzea ahalbidetuz. Oso garrantzitsua da hazkuntza-prozesu honen barruan, haur hauek beren hutsegiteak onartzeko gai izatea. Zerbait lortzeko zer espero dezaketean ulertzen lagundu behar diegu, baina ez diegu agindu behar bete ezin dezakeguna, hots, ez diegu iruzur egin behar beren igurikapenei dagokienez.

Bere **denboraren senak** segidan gertatutako gertakari pertsonalak hartzen ditu abiapuntutzat. Bere buruarekiko duen sena oso sakona da eta berea defendatzen duenean oso berekoia dela dirudi; baina, nortasun-sentimendu hau errespetatzen bada, berea dena besteekin banatzen hasteko gai izango da.

**Espazioaz jabetzeko gaitasuna** garatu gabe dute eta, beraz, haurrek erreferentzia afektibo argiak, seinaleak, sinboloak, maskotak eta abar... behar dituzte, beraietzako prestatutako tokietan segurtasunez mugitzea erraztu diezaieten. Haur-eskolak espazio erosoak eta zabalak eskaini behar ditu; espazio hauek haurrentzat esanahi bat izan behar dute bertan arian-arian mugimendu zehatzagoz mugitu ahal izateko.

**Haurrek, behar bezala garatzeko, beren ahalbideak ezagutu behar dituzte, baloratuak direla sentitu behar dute eta helduen igurikapenak beren ahalbide pertsonalei egokitzen zaizkiela ikusi behar dute; hots, esperientzia atseginak eta bizitzarako baliagarriak, elkarbizitza eta ikaskuntza eskaini behar zaizkie.**

Gainera, haur bakoitzak garapen autonomoa du, bere erritmoa, bere lorpenak eta bere bizipenak ditu eta, ondorioz, **gure geletan aniztasunaren benetako trataera bat behar dugu.**

## **BI URTE DITUT ETA HORRELAKOA NAIZ:**

### **ONDOKOAK EGIN DITZAKET.**

- Nire buruarengan pentsatu.
- Nire premiak adierazi.
- Imitatatu.
- Bakarrik jolastu, laguntzarik gabe jan, korrika egin, salto egin, eskailerak igo eta jaitsi.
- Jostailu bategatik borrokan aritu.
- Komunikatu.
- Azturak hartu.
- Objektuak aztertu.

### **ONDOKOAK EZIN DITUT EGIN.**

- Afekturik gabe hazi.
- Besteengan pentsatu.
- Egoera berrietara berehala moldatu.
- Denbora luzean arretari eutsi.
- Denbora luzean geldirik egon.
- Ahoz behar bezala espresatu.
- Beti esfinterrak kontrolatu.

### **ONDOKOA EZIN DUT EGIN, BAINA IKAS DEZAKET.**

- Nire gurasoengandik banandu eta beste helduekiko lotura afektiboak sortu.
- Beste batzuekin eta beste batzuen ondoan jolastu.
- Jostailuak besteekin elkarbanatu.
- Nire erritmo biologikoak egokitu.
- Autonomia bereganatu.
- Denbora batez eserita egon.
- Arretari eutsi.
- Aukeratu.
- Modu askotan komunikatu.
- Pixkanaka hitz egiten ikasi.
- Esfinterrak kontrolatu.

### **3- EDUKIEN HEZKUNTZA-TRATAERA.**

#### **3.1- 0-TIK 3 URTERA BITARTEKOEN ZIKLOA ETA GLOBALIZAZIOA.**

**Globalizazioaren** kontzeptua ez dagokio ikasleei edukiak aurkezteko moduari bakarrik; batez ere, ikuspegi zehatz batetik aztertu behar den fenomeno bat da, hots, **haurrek ikaskuntzak burutzeko duten moduaren** ikuspegitik.

**Globalizatzeak esan nahi du haur bakoitzak bere izaera guztia funtzionamenduan jartzen duela eta, beraz, bere adimen-egitura ere martxan jartzen duela, inguratzen duena edo lortu nahi duena ulertzeko, interpretatzeko eta ezagutzeko.**

Globalizazioa zer den ulertzeko egindako ahaleginen ondorioz, nahaste ugeri sortu dira eta beti egokiak izan ez diren praktika anitzak garatu dira.

Irakaskuntzaren ikuspegitik ulertutako globalizazioak arlo desberdinak artifizialki biltzen dituzten hainbat lan-proposamen eragin ditu: matematika, plastika hizkuntza idatzia... Azkenean, programatutako gaiean sakontzeak zuen garrantzi gutxiena. Horrela, haurrek isolaturik burutu behar ziren lanak bailiran ineterpretatzen zituzten iharduerak, sarritan zer zentzu zuten eta zer egiten ari ziren ulertu gabe.

**Ikaskuntzaren ikuspegitik ulertutako globalizazioak esan nahi du haurrek duten ikasteko gogo naturala errespetatzen duten lan-proposamenak burutzea, beren interesak, ideiak eta ezagutzak abiapuntutzat hartu eta ikaskuntza esanguratsuak eraginez.**

Ikasteko plazerra ahalbidetzeko, gainera, **haur bakoitzak dituen premiak errespetatu behar dira.**

Hasteko, kontuan hartzen da 2 urteko haurrek, besteak beste,

#### **ONDOKOAK BEHAR DITUZTELA:**

- Afektua, onartuak izatea eta errespetua.
- Beren premia fisiologiakoak asetzea: elikadura, higiena, atsedena, loa.....
- Jolastea eta mugitzea.
- Beren buruaren iritzi positibo eta zehatz bat barneratzea.
- Beren ohiko ihardueretan gero eta autonomia gehiago lortzea.
- Beren sentimenduak, emozioak eta premiak adieraztea.
- Besteen sentimenduak, emozioak eta premiak ulertzea.
- Beren gizarte-harremanen eremua arian-arian zabaltzea.
- Beren ingurune fisikoa eta soziala behatzea, aztertzea, ezagutzea, interpretatzea, manipulatzeko eta bertan esku hartzea.

Premia hauek errespetatzeko eta hauei erantzuna emateko modurik argiena da estrategia globalizatzaileak erabiltzea. Estrategia hauetan ikaskuntzak ez dira isolaturik aurkeztuko; **gaitasun afektiboak, kognitiboak, mugimenezkoak eta sozialak intentzionalki eta erlazonaturik onartu eta bultzatu behar dira, haurren premia horiei erantzun koherentea, espezifiko eta globala emanez.**

Haurrek ekintzen, manipulazioen eta jolasen bidez beren gorputza eta inguruko espazioak eta objektuak aztertzen dituztenean, elkarreragina izaten dute beraiekin bizi diren pertsonekin, beren nortasuna eta autonomia sendotzen dute, eta komunikazio- eta irudikapen-

eremua osatzen duten hizkuntza desberdinak erabiltzen eta finikatzen dituzte. Horrela, aldi berean garatzen dituzte beren gaitasun afektiboak, mugimenezkoak, kognitiboak, erlazionalak eta gizarteratzeari dagozkionak, hiru esperientzi eremuak elkarlotzen dituen lan batean.

Adin hauetan ikaskuntzen globalitatearen lehen adierazpena nabarmen geratzen da harreman afektiboan. Honek ez du esan nahi etengabe afektua erakutsi behar zaienik, iharduera profesional lasai eta adeitsu bat eskatzen duela baizik. Kontuan izan behar da **mundu afektiboak gelan eta bertan burutzen diren ikaskuntza guztien eraketan presentzia aktiboa duela; eta adin hauetan hau hartzen da globalizazioaren oinarritzat.**

## Argazki 2

Beraz, haurraren nortasunaren taxutze-prozesua ahalbidetzeko eta laguntzeko, kontuan izango da **prozesu horren izaera aktiboa eta elkarreragin sozialean duen burutzapena, betiere osagai afektibo batekin.**

Zabalzaren hitzak gogoratuz (1987), sentimenduak, garapen pertsonalaren eta sozialaren oinarri direnak, egitura esanguratsuenak dira, hauetan emozioei dagokiena eta adimenari dagokiona nahasten direlako. Horrela bada, nor bere burua sentitzea gauzak egiteko eta ezagutzeko gai dela ikustearen ondorioa da.

Helduek haurren nortasuna eratzten aktiboki laguntzen dugu, afektua adieraztean, gure beharra duenean erantzutean, problema txikiak planteatzean –huts egiten utziz eta berriz ere saia dadin animatuz–, azken batean, errespetua, afektua eta konfiantza adierazten dizkiogunean.

### **3.2- HELBURUAK ETA EDUKIAK ZEHAZTEKO ETA HEZKUNTZAREN ESKU-HARTZERAKO ORIENTABIDEAK**

Kapitulu honetan proposatzen diren orientabideak, EAEan Haur Hezkuntzaren curriculum-a ezartzen duen Dekretuan eta honi dagokion Oinarrizko Curriculum-Diseinuan adieraziak dira. Beraz, irakasleek hauek irakurri eta erabili beharko dituzte beren hezkuntza-praktika planifikatu eta garatzeko erreferentzia gisa.

Kapitulu honetan gure asmoa da ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-taldeari **jarraibide** batzuk eskaintzea, aipatutako dokumentuetan proposatutako **hiru Esperientzi Eremuen helburuak eta edukiak zehazteko eta 2 urteko ikasleei egokitu ahal izateko**. Horrekin batera, **hauei dagokienez hezkuntzaren esku-hartzea orientatuko duten jarraibideak** eskaintzen ditugu.

Orientabide horiek aipatutako eremuetako eduki-multzo desberdin bakoitzari dagozkion arren, honek ez du esan nahi eguneroko lana multzo isolatuetan antolatu behar denik, aitzitik, jadanik adierazi dugunez, hauek praktikan sakonki erlazionaturik daude.

**Hezkuntza-langileei dagokie irakatsi eta ikasteko egoerak diseinatzea, hurrek ikaskuntza desberdinak naturalki eta elkarren artean erlazionaturik burutu ditzaten, beren gaitasunen garapen bateratua eta integratua ahalbidetuz.**

#### **3.2.1- NORTASUNA ETA AUTONOMIA PERTSONALA.**

##### **3.2.1.1- Gorputza eta norberaren nortasuna.**

<p>Eduki-multzo honen helburua da ikasleak bere gorputzaren (bere elementuen, oinarrizko premien, sentimenduen eta emozioen) kontrolean eta ezagutzan aurrera egitea eta, horrez gain, eguneroko jolas-egoeretan bere ahalbideak ezagutu eta erabiltzea, horrela, bere buruaren iritzi positibo bat taxutu dezan eta joan-etorrietan, jatean, atseden hartzean, garbitzean, janztean eta abar gero eta estrategia autonomo gehiago erabili ditzan.</p>
--

Hurrek beren gorputza, beren ezaugarri, atal eta elementu nabarmenenak ezagutzea ahalbidetuko da (besoak, hankak, eskuak, oinak, burua, aurpegia, tripa eta abar). Ezagutza hau bere **ekintzen bitartez** burutuko dute, **mugimen-jolasetan eta objektuekin jolastean, bai eta beren oinarrizko premiak (higienea, elikadura, loa...) asetuz eta besteen gorputzak ukituz ere.**

Beren ekintzetan, harremanetan eta beren oinarrizko premiak asetzean, hurrek sententzio eta pertzepzio desberdinak izango dituzte, beren gorputz-itxura eta nortasuna taxutzen lagunduko dietenak.



Sentsazio eta pertzepzio esterozeptiboek, kanpotik jasotakoek, bere gorputzari eta kanpoko munduari buruzko informazioa emango diote, azal-, usaimen-, dastamen-, entzumen- eta ikusmen-erzeptoreen eta errezeptore kinestesikoen bitartez eta, beraz, bereziki garrantzitsua da zentzumen guztien ariketak sustatzea.

Gorputz-itxuraren pertzepzioa erraztu egin daiteke ispiluaren aurreko jolasekin, mozorroekin, kantekin eta jolas tradizionalekin. Gure kulturak kanten eta jolasen errepertorio zabala du, eta hau aprobetxa daiteke giro alai eta erlaxatu batean gorputzaren atalak identifikatzeko eta hauekin ariketak egiteko.

Itxura fisikoaren eta besteekin duten harremanaren pertzepzioaren bitartez, haurrak besteekiko desberdinak direla eta berezko nortasuna dutela ohartuko dira eta, horrez gain, beren burua mutilen taldean edo nesken taldean identifikatuko dute. Hezitzailearen zeregina izango da bereziketa hau inolako diskriminaziorik gabe gerta dadin laguntzea.

Sentsazio eta pertzepzio interozeptiboen, barnetik jasotakoek, bitartez egoera fisiologiko desberdinak (gosea, egarria, garbitasuna, nekea, logurea...) eta horiei lotutako ongizate edo ondoez-sentsazioak identifikatuko dituzte, helduen laguntzarekin gero eta hobeto bereiziz eta gero eta zehatzago adieraziko eta izendatuko dituztelarik. Era berean, sentimendu eta emozio anitzak sentituko dituzte (poza, beldurra, tristura, plazerra, plazerrik eza, haserrea...). Hezitzaileek hauek adierazten eta identifikatzen lagunduko diete, arian-arian kasketak eta erasoak bezalako jokabideak kontrolaraziz.

Jolasetan eta eguneroko ihardueretan lortutako pixkanakako lehiak, trebetasunek eta ekintza-autonomiak segurtasuna, norberaren balioaren sentimendua eta estimazio pertsonala eragingo dizkiote. **Helduek aktiboki lagundu dezakete haurren autoestimazioa eta nortasuna taxutzen, hauei afektua adieraziz, beren eskaerei eta premiei erantzunez, erronka eta exijentzia txikiak planteatuz, huts egiten utziz eta berriro saiatzera animatuz, azken batean, afektua eta konfiantza adieraziz.**

### 3.2.1.2- Jolasa eta mugimendua

<p>Multzo honetan oinarrizko edukiak dira koordinazioa eta gorputzaren kontrol dinamiko orokorra trebatzea, trebetasun manipulatzaileak gaitzea eta ikusmenaren eta mugimenaren koordinazioa gaitzea. Honek guztiak posturen erregulazioan eta kontrolean, muskuluen tonuaren modulazioan, oreka estatikoaren eta dinamikoaren kontrolean, gorputz-atal desberdinen mugimenduen disoziazioan, eta espazioaren antolamenduan eta orientabidean aurrera egitea ahalbidetuko die haurrei.</p>
--

**Eskolak esparru egoki bat eskaini behar du, bat-bateko ekintzak eta beren inguruneko espazioetan eta objektuekin iharduteko plazerra ahalbidetuko dizkiena.** Behin eta berriz etengabe errepikatzen dituzten bat-bateko jolasen bitartez, haurrek, helduen estimuluaren laguntzaz, beren oinarrizko segurtasuna eraikitzen dute munduaren eta besteen aurrean, beren nortasuna eta gorputz-itxura antzematen dituzte eta pentsamenduaren eta hizkuntzaren munduan sartzen dira.

Korrika egiteko, saltatzeko, biratzeko, igotzeko, jaisteko, norberaren burua botatzeko, pedalei eragiteko eta abarrerako mugimen-jolasei esker, koordinazio dinamiko orokorreko eta gorputz-oreka estatiko eta dinamikoko gaitasun eta trebetasun praktikoak bereganatzen dituzte. Hauek norberak bere buruaz duen iritzia, bere nortasunaz duen irudia eta haurren autoafirmazio-prozesuak (nik dakit, nik egiten dut, nik ahal dut...) eratzen laguntzen diete; era berean, beren ekintzak eta joan-etorriak egiten dituzten espazioetara ohitzeko eta bertan orientatzeko ere lagungarriak zaizkie.

Bestalde, gure kultur erreperitorioetik hartutako eta kantetan edo imitazioan oinarritutako euskal herri-jolasen proposamen irekiak ere egin daitezke, hauek testuinguru lasai eta atsegin batean gorputz-ariketak egitea ahalbidetzen baitute, koordinazioen, joan-etorrien eta abarren bidez.

Horrekin batera, haurrek beren inguruneko objektuak erabiltzen eta aztertzen dituztenean problema desberdinak ebazten dituzte: besteak beste, lerrokatzea, metatzea, ahokatzea, betetzea, hustutzea, sartzea, ateratzea, kiribiltzea, askatzea, urrutiratzea, hurbiltzea, garraiatzea, elkartzea, banantzea eta abar. Ariketa hauen bidez, gero eta finagoak eta zehatzagoak diren ikusmenaren eta mugimenaren koordinazioak eta trebetasun manipulatzaileak garatzen dituzte eta, aldi berean, espazio-antolamenduaren eta -orientabidearen nozioak beraganatzen dituzte eta, ideiak lotuz eta ingurunea kategoria desberdinetan sailkatuz, beren pentsamendua garatzen dute.

### Argazki 3

Halaber, garrantzitsua da agertzeko-desagertzeko jolasak (oihal baten atzean, karel baten atzean... ezkutatzea), jazartzeko jolasak (harrapaketan ibiltzea...), bai eta irensteko jolasak ere (otsoaren jolasa, munstroena...) ahalbidetu eta bultzatzea, hauek adierazten baitituzte haurraren beldurrak, oraindik kontrolatzen ez duen eta mehatxua bailitzan ikusten duen munduaren aurrean dituenak. Jolas hauen bidez, desagertzeko, harrapatuak izateko, edo irentsiak izateko beldurra gaindituz, haurrek kanpoko munduari aurre egiteko dituzten ahalbideekiko oinarritzko segurtasuna eta konfiantza bereganatzen dituzte.

**Mugimen-gaitasunen eremuan zein oreka pertsonalaren eta erlazionalaren eremuan ager daitezkeen desorekei arreta berezia eskaini behar zaie, hezkuntzaren esku-hartzea egokitzeo eta arazoak larriagotzea edo behin-betiko enkistatzea saihesteko.**

### **3.2.1.3- Autonomia eguneroko bizitzan**

Multzo honetako edukien bitartez lortu nahi dugu, haurrek, hezkuntzaren esku-hartze egoki baten laguntzarekin, beren eguneroko jolasetan eta ihardueretan ekimena, autonomia eta inplikazio pertsonala garatzea, bai eta arian-arian talde-ekintzetan sartzea eta besteekin bizitzeak ekartzen dituen exijentziez ohartzea.

**Garrantzitsua da haur-eskolak eguneroko zereginen eta iharduereen ebazpenean autonomia eta ekimen pertsonalak sustatzea eta haurrei talde-bizitzaren eskakizunetara eta exijentzietara ohitzeko bidea erraztea.**

Horretarako, **espazio- eta denbora-esparru argi eta egonkor bat sortu behar da**, bertan libreki aukeratutako bat-bateko iharduerak nahiz helduek proposatutakoak sar daitezten. Esparru horretan **iharduera-mota desberdinen segida erregularrak** besteen jokabideak aurreikusten eta nork bereak arautzen lagundu behar die.

**Haurrek autonomoki ebatzi behar dituzten zereginak eta iharduerak guztion artean burutzeko beste iharduera batzuekin txandakatzea** komeni da. Beren arretari eta inplikazioari eutsi ahal izateko, saio hauetako denbora beren ahalbideei egokitu behar zaie; izan ere, arreta eta inplikazio horiek entzuteko aztura, parte hartzeko bere txanda itxaroteko aztura eta abar garatzeko aukera emango diote.

Eguneroko ekintzetan –janztea, jatea, edatea, komunera joatea, jolas-materialak atera eta gordetzea– eta objektu eta material desberdinak erabiltzean, autonomoki ebazten utziko die hezitzaileak; beraiek laguntza eskatzen dutenean eta bakarrik egin ezin dutenean bakarrik lagunduko die zeregina amaitzen.

Beren autonomia ahalbidetu eta bultzatzearekin batera, haurrak besteekin elkarbizitzen hasiko dira harreman goxo eta xeratsuen esparruan, hezitzaileen eskakizunetan oinarrituz beren jokaera arautzen, beste haurren gurariak onartzen eta elkarbizitzarako beharrezkoak diren arau batzuetara (gutxi baina argiak direnetara) moldatzen ikasiz.

### **3.2.1.4- Osasuna eta ongizatea**

Haur Hezkuntzaren lehen zikloan, haurrak zaintzeaz eta hezitzeaz arduratzen diren pertsonen dagokie hauen osasunaren eta ongizatearen erantzukizuna.

**Aurreko multzoetan aipatutako hezkuntzaren esku-hartzearen helburuek, edukiek eta moduek haurren osasuna eta ongizatea eragiten dutela** esan daiteke, haurrek dituzten afektua jasotzeko, harremanak izateko, ekintzak egiteko eta inguruko mundua aztertu eta ulertzeko oinarrizko premiak **asetzen dituzten neurrian**. Gainera, norberaren nortasuna eta gaitasunak sendotzeko baliabide bat ere badira. Baina eduki-multzo honetan, batez ere, haur-eskolak ondokoak bezalako premiak behar bezala asetzeari arreta egokia eskaintzeak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu: haurren elikadura, higiena, atsedena eta segurtasun fisikoa.

Garrantzitsua da eremu honetan, beste batzuetan bezala, **familiekin koordinazio estua izatea**, alde batetik, etxean ezarritako erritmo biologikoak eta ohiturak errespetatzeko eta hauek arian-arian eskola-esparrukoei egokitzeo eta, bestetik, konpentsatzeko neurriak behar dituzten gabeziak antzemateko

## Argazki 4

Gorputz-higieneari dagozkion ekintzetan (garbiketa, esfinterren kontrola...), zein elikadurari eta loari dagozkienetan, kontuan izan behar da, premia biologikoak eta biziraupenekoak asetzeaz gain, helduen eta haurren arteko elkarreraginezko iharduerak ahalbidetzen dituztela; eta hain zuzen ere, hauek funtsezkoak dira oreka emozionala izateko, norberari buruzko iritzi positiboa izateko eta haurren garapen kognitibo eta sozialerako. Horregatik, jadanik adierazi dugunez, ekintza hauek giro erlaxatu eta komunikatibo batean burutu behar dira, exijentziak malgutuz, eta zorrotasuna, hezitzaileen eta haurren arteko gatazkak eta horiei lotutako lehia saihestuz.

Premia hauek asetzera zuzendutako espazioek (jantokia, garbiketa- eta aldaketa-zona, lotarako zona...) erosoak izan behar dute, giro goxoa izan behar dute, behar bezala hornituta eta higienizatuta egon behar dute eta, aldi berean, segurtasuna eta elkarreragina ziurtatzeko bertan hezitzaileak egongo dira.

Bestalde, haurrak iharduera jakin batzuetan lankidetzan aritzea edo iharduera hauek gero eta autonomia handiagoz burutzea komeni da; iharduera hauek ondokoak izango lirateke: beren gorputz-higieneari lotuta daudenak (aurpegia eta eskuak garbitzea, musuzapia erabiltzen hastea, komuna eta bertako tresnak erabiltzea...), beren atsedinari eta elikadurari lotuta daudenak (basoa erabiltzea, jateko goilara eta sardeska erabiltzea, mahaia jarri eta jasotzea...), eta beren eguneroko bizitza garatzen deneko tokiak eta objektuak zaintzeari eta gordetzeari lotuta daudenak (jostailuak zaintzea, paperontzia erabiltzea...).

Era berean, segurtasun fisiko pertsonalarekin lotutako azturak eta jarrerak hartzeari dagokionez —esate baterako, istripuen prebentzioa—, hau ikuspegi positibo batetik tratatu behar da, estuasunak eta beldurrak saihesteko, eta haurrengan arrisku-egoerez (kalea begiratu gabe zeharkatzea, lurrean aurkitutako objektuak jatea, lasterketetan eta saltoetan jokabide arriskutsuak izatea...) jabetzea eragingo dieten zentzuzko jarrerak sustatzeko.

### 3.2.2- INGURU FISIKOA ETA SOZIALA

#### 3.2.2.1- Famili eta eskola-ingurunea

Haur Hezkuntzako ikastetxean hurrek beren famili ingurunea beste ingurune berri eta ezezagun batera hedatzen dute.

Eskolatzearen hasieran, hezkuntzaren esku-hartzearen funtsezko helburuetako bat da familiako bizitzatik eskolarako igarotzearen arrakasta ziurtatzea; hau da, esperientzia atsegina izatea, haurren nortasunaren garapenean aurrerapenen iturri izatea eta ez blokeoena.

Horretarako, **igarotze hori autonomoki eta norberaren ekimenez egin dezaten, haur bakoitzari denbora nahikoa eman behar zaio**, senideengandik arian-arian bananduz eta eskola-inguruarekin pixkanako harremana izanez, eskolan bakarrik geratzeko behar adina konfiantza lortu dutenean (Ikus “egokitze aldiari” dagokion atala).

Multzo honi dagokionez, **bere helburua da haurrak familiako eta eskolako partaide aktibo sentitzea, arian-arian helduekin eta beren eskola-taldeko ikaskideekin harreman afektiboak eta elkarreraginezkoak ezarriz**. Halaber, famili eta eskola-ingurune elementu batzuk ezagutzen eta izendatzen hasi behar dute (gelak eta bertan burutzen diren iharduerak, senide zuzenenak eta eskolan beraiekin bizi diren pertsonak...); horrez gain, bi ingurune horietan eguneroko bizitzako objektu desberdinen ezaugarri garrantzitsuenetako batzuk eta beren erabilgarritasuna edo funtzioa ezagutu behar dituzte.

Hurrek eskolako eta etxeko elementuak ezagutu ditzakete eta talde-bizitzan eta bizitza erlazionalean sar daitezke **eguneroko bizitzako ihardueretan inplikaturik eta bi ingurune horietako pertsona esanguratsuekin dituzten elkarreraginaren eta harremanaren bitartez**.

Horrela, beren joan-etorrietan, iharduera desberdinak egiten dituztenean eta etxeko eta eskolako gela desberdinetan objektu anitzak manipulatu dituztenean, elementu desberdinak ezagutzen dituzte, bai eta beren ezaugarriak eta funtzioak ere, beren itxuran edo beren jokabide fisikoan antzekotasunak, desberdintasunak edo erregulartasunak antzemanez.

Era berean, bere ingurune pertsona esanguratsuekin (senide hurbilak, hezitzaileak, ikaskideak, eskolara hurbiltzen diren ikaskideen senideak...) harremanak dituen neurrian, bere burua eta besteak berezko pentsamenduak, sentimenduak, gurariak eta asmoak dituzten gizakitzat hartuko ditu eta arian-arian bereak adierazten eta besteak kontuan hartzen ikasiko du. Horrez gain, taldean berak duen rola eta besteak antzemango du, pixkanaka bere jokabidea horien arabera arautuz eta arian-arian elkarbizitzako arauak bere gain hartuz.

Ingurunea ezagutzeko prozesua eta talde-bizitzan sartzekoa ez dituzte bakarrik burutzen, aitzitik, helduen funtsezko bitartekotza dute. **Hauek, hasteko, autonomia ematen diete eta beren ingurune objektuak eta tresnak aztertzerik eta manipulatzera bultzatzen dituzte eta, gainera, beren jolasetan eta ihardueretan laguntzen diete, onarpen- eta animo-begiradak zuzenduz edo elkarreraginaren eta esku-hartze zuzenaren bitartez**.

Hezitzaileek bitarteko-funtzioa betetzen dute haurren ikaskuntzetan, espazioak material anitzez hornitzen dituztenean eta hurrekin ekintzak egiten dituztenean eta jolasean aritzen direnean: beren aurkikuntzak behatuz eta elkarbanatuz; galderak eginez edota hurrek egindakoei erantzunez; arreta objektuetan eta beren ezaugarri fisiko behagarrietan (tamaina, kolorea, usaina, sonoritatea, ehundura, zaporea, sustantzia, koalitate termikoak...) jartzen lagunduz; hurrei interesatzen zaizkien kontuei buruzko informazioa zabalduz; iharduera bakoitzerako denborak ezarriz; egin daitekeenari eta egin ezin denari buruzko mugak jarritz (objektuak hautsi, besteei eraso egin...) eta abar.

Garrantzitsua da hezitzaile-taldeak hurrei famili eremuko eta eskola eremuko bizipenak eta esperientziak lotzen laguntzea. Horretarako, komeni da familien eta hezkuntza-langileen artean etengabeko informazio-truke bat izatea, etxetik eskolara objektu esanguratsu batzuk eramaten uztea eta alderantziz, eta beren senideez, esperientziez, bizipenez, ohiturez eta etxeko objektuez hitz egiteko zein famili eremuari lotutako argazkiak eta irudi-liburuak behatzeko aukera ematea.

### 3.2.2.2- Gizarte-ingurunea eta -bizitza

Famili eta eskola-testuinguruek gizarte- eta kultur ingurune zabalago baten zati bat osatzen dute; bertatik eragina jasotzen dute eta, era berean, beraiek ere eragina dute eremu horretan. Haur txikiei dagokienez, gizarte-eta kultur inguruneak bakoitzaren auzoa edo herria hartzen du, bai eta horren hurbilak ez izan arren, telebista, irudi-liburuak, argazkiak eta abar bezalako kultur euskarrien bitartez beren arreta eta interesa jasotzen duten beste testuinguru batzuk ere.

Multzo hau hurrek beren gizarte- eta kultur elkartea pixkanaka ezagutzea eta bertan sartzea ahalbidetzen duten edukiei dagokie. Honen helburua da hurrek arian-arian beren auzoa edo herria ezagutzea eta bertako elementu batzuk eta beren gizarte-antolamenduaren forma batzuk behatzen eta ezagutzen hastea.

Gizarte- eta kultur ingurune hurbilena adin hauetan haurraren arreta eta interesa jasotzen dituzten estimulu fisiko eta sozialen iturri bat da. Hasiara batean beren arreta objektu edo elementu espezifikoean jartzen dute (auto bat, denda bateko produktu bat edo balantza, estolda baten estalkia, kale-garbitzaile bat...), elkarren segidako esperientzietan beren ezaugarri eta jokaera behagarrienak antzemanaz. Pixkanaka, behatutako datuak euren artean lotzen dituzte, objektuei, beren ezaugarriei eta beren jokaerari buruzko ideia bat osatu arte (auto batek gurpilak, bolantea eta abar ditu, garajetik irteten da, tokiz mugitzen da, aparkatu egiten da...); edota giza ekintzei eta egoera desberdinen aurrean pertsonak dituzten jokabideei buruzko ideia bat osatu arte (dendan produktuak eskatzen dira, pisatu egiten dituzte, bildu egiten dituzte, dirua ematen da...).

Hurrek esperientzia eta ezagutza horiek ezagutzeko aukera izan dezaten, **haur-eskolak sarritan irteerak antolatuko ditu beren auzoko edo herriko espazio hurbilenetara, bertan aurkitzen diren objektuak eta pertsonak behatzea eta haiekin elkarreragina izatea ahalbidetuz.**

Irteera hauetan, hezitzaileek haurren jakinmina sustatuko dute eta iharduteko marjina eta nahikoa denbora emango dizkiete lasai iharduteko eta behatzeko aukera izan dezaten, beren berezko erritmoen, premien eta interesen arabera.

Halaber, hurrek antzematzen ez dituzten ezaugarri behagarri batzuetan arreta jartzen lagunduko diete, hurrek egindako aurkikuntzei buruzko galderei erantzungo diete eta sentitzen dituzten emozioak eta sentimenduak adierazten utziko diete.

Horrekin batera, tarteka kanpoan gertatzen diren eta eskola-barrutitik antzeman daitezkeen **egoerak** **aprobetxa** **daitezke** haurrek hauek behatzea bultzatzeko (kalean egiten diren konponketak, kalea garbitzeko makina bat, butano-banaketa...).

Era berean, gizarte eta kultur inguruneko egoera eta elementu esanguratsuei buruzko argazkiak edo beste irudi-mota batzuk eskura izatea ere komeni da, ikasleek hauek behatu eta beraiei buruzko iruzkinak egin ahal izan ditzaten. Aldi berean behatutakoa beren aldez aurreko bizipenekin eta esperientziekin lotzen lagunduko zaie (kalea, parkeak, denda...)

Argazki 5

### 3.2.2.3- Ingurune naturala

Familia, eskola, auzoa edo herria testuinguru bat duten gizarte- eta kultur egiturak dira, ingurune natural jakin batean daude kokatuta eta honek baldintzatu egiten ditu eta alderantziz, hau da, beraiek ere eragina dute ingurune honetan.

Haur-eskolaren asmoa da hurrek, beren gizarte eta kultur ingurunea ezagutu eta bertan sartzearekin batera, ingurune natural hori ere ezagutzea eta bertan sartzeko aukera izatea.

Multzo hau dagokie haurren bizitza garatzen deneko mundu naturalari buruzko ezagutza fisikoa eta soziala pixkanaka bereganatzea ahalbidetzen duten edukiei, haurrak mundu horretan sartzeko ahalbidetzen dutenei eta, horren hurbilak ez izan arren, esanguratsuak diren beste ingurune natural batzuk ezagutzea ahalbidetzen dutenei.

Adin hauetako hurrek, oro har, ingurune naturaleko elementu eta fenomeno jakin batzuekiko interes handia erakusten dute; hauetako batzuetan beren arreta osoa jartzen dute eta beren ekintza manipulatuzaileen ardatz gisa hartzen dituzte eta, horrekin batera, sentsazio eta emozio ugari sentitzen dituzte. Halakoak ditugu, adibidez, bainugelan, uretan plisti-plasta egitean eta lurra manipulatzeko sentitzen dituzten sentsazioak, oro har oso atseginak izan arren batzuetan beldurra sentiarazten dutenak; euriarekiko eta putzuekiko sentitzen duten erakarpena; haizearen menpe jartzean sentitzen den plazerra edo beldurra; ekaitz batean sentitzen den harridura edo beldurra; lore batekiko mirespena; animalia jakin batzuekiko erakarpena edo beldurra eta abar.

Gizarte eta kultur esparruko objektuekin eta beste elementuekin gertatzen den bezala, hurrek hasiera batean ingurune naturaleko elementu zehatzetan jartzen dute arreta, beren ezaugarriak, beren jokabidea eta, jarraikako azterketen eta behaketen bitartez, sortzen dituzten sentsazioak antzemanez; azterketa edo behaketa horiek elementu horiekin harreman zuzena izanez eta irudi-liburuen, telebistaren eta abarren bitartez burutuko dira. Astiro eta pixkanaka informazio horiek guztiak elkarren artean lotuko dituzte, beren inguruneari buruzko ezagutza gero eta osoagoa bereganatuz.

Horregatik, haur-eskolak hurrek ingurune naturaleko elementuekin harremana izatea eta hauetara ohitzea sustatuko dute, sentsazio atseginak biziaraziko dizkieten baldintzetan, haien aurrean edo haiek manipulatu sentitzen dituzten beldurrak edo higuinak gainditzeko aukera emango dieten baldintzetan eta beren osasunarentzat arriskugarriak diren jokabideak saihestuko dituzten baldintzetan (kontrolik gabeko animaliak ukitzea, euripean arropa egokirik gabe egotea...). Horrek guztiak segurtasun eta lehia-sentimenduak eragingo dizkie eta beren ingurunean autonomia handiagoz moldatzea ahalbidetuko die.

Hurrek **eskolan eta eskolatik hurbil dauden espazioetan aire librean jolasteko eta iharduteko aukera** ugari izan behar dute. Eskolako jolastokia espazio egokia da ingurune naturaleko elementu eta fenomeno batzuk behatu eta horiekin harremanetan jartzeko (txingurri bat, izoztutako putzu bat, hostoak erortzea...). **Ahal den guztia egingo da jolastokiak ura, belardun zonak eta zuhaitz anitzak, manipulatzeko lur- edo hondar-zonak, zona estaliak eta irekiak, animalia batzuentzako espazioak eta abar izan ditzan.**

Haurrak hezitzaileekin lankidetzan aritzea komeni da animalia edo landare batzuen zainketan, elikaduran eta higienean. Horrela, beren jokabidea behatu eta beren kanpoko ezaugarriak antzemateko aukera izango dute; gainera, izaki bizidunekiko zainketa eta errespetu-jarrerak hartuko dituzte eta arian-arian beren oldarkortasuna kontrolatuko dute (laxanduz, kontu handiz manipulatu...).



Era berean, behaketa-objektu gisa **aprobetxa daiteke eskolan antzeman daitekeen eta ikasleen arreta jasotzen duen ustekabearen sortutako edozein egoera** (txingor-zaparrada bat, zuhaitzen inausketa, euria...).

## Argazki 6

Halaber, garrantzitsua da ingurune naturaleko elementuak, haurrentzat esanguratsuak direnak, dituzten irudi-liburuak eskura izatea **eta hauen behaketa eta hauei buruzko iruzkinak suspertzea, bai euren artean bai eta helduekin ere.**

### 3.2.3- KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIKAPENA

#### 3.2.3.1- Ahozko hizkuntza

Bi urteko haurra, orohar, jadanik hasia da ahozko hizkuntza erabiltzen harremanak dituen pertsonekin komunikatzeko, bai eta bere inguruneko objektu eta gertakari desberdinak hitz egokiez izendatzeko ere. Beraz, ahozko hizkuntza komunikazio-tresna gisa erabiltzen ari da eta, gainera, errealitatea, modu berri batean irudikatu eta kontzeptualizatzeko (hitzak benetako objektua ordezkatzeko; desberdina den guztia hitz desberdinez izendatzen da eta, beraz, objektu desberdinen ezaugarri komunak antzeman eta berdinez izendatuko dira...).

Eduki-multzo honen helburua da haurrek ahozko hizkuntza gero eta zabalagoa eta zehatzagoa erabiltzea, bai besteekin komunikatzeko, bai eta beren eguneroko bizitza igarotzen den errealitatearen irudikapenean eta kontzeptualizazioan aurrera egiteko ere.
---

Haurrek ez dute ahozko hizkuntza automatikoki bereganatzen eta garatzen, aitzitik, **eguneroko ihardueretan, beren artean eta helduekin ezartzen diren komunikazio-elkarreraginetan burutzen da.**

Prozesu honetan, haurrak ez dira izaki pasiboak; beren inguruan entzuten duten hizkera aktiboki eta pixkanaka jasotzen dute, bere funtzionamenduari buruz landu duten hipotesia probatuz, bai hitzen esanahiari dagokionez, bai eta beren alderdi tonalei, fonologikoei, morfologikoei, sintaktikoei eta pragmatikoei dagokienez ere.

Horregatik, hitz egitean aipatutako alderdietan sarritan izaten dituzten akatsak, hizkuntzaren eraketa-prozesu aktiboaren aztarnatzat hartu behar dira. Hauek zuzendu egingo dituzte, erabileraren poderioz beren hipotesiak hizkera konbentzionalari egokitzen ez zaizkiola edo beren solaskideek beren espresioak ulertzen ez dituztela ohartzen diren neurrian. Haurrek hitz eginez, hizkuntza eguneroko komunikazio-egoeretan erabiliz, hobetuko dute beren hizkuntza; hau da, ez dute hobetuko oker erabilitako hitzen edo espresioen errepikapen meknikoen eta testuinguruz konpoko errepikapenen bitartez.

**Haur-eskolak komunikazio-esparru bat eskaini behar du, bertan haurrek beste haurrekin eta beren hezkuntzaz arduratzen diren pertsonekin beren esperientzien eta aurkikuntzez hitz egiteko aukera izan dezaten.**

Garrantzitsua da hezitzaileak haurrekin komunikatzeko gogoia adieraztea beren jolasetan eta ihardueretan eta beren komunikazio-jarrerak onartu eta estimulatzea, komunikatu nahi dietenaren asmoa eta esanahia ulertzeko ahalegin guztiak eginez; horrela, hortik aurrera elkarrizketarekin jarraituko dute aldi berean esanahietan aberatsa den ondo egituratutako hizkuntz eredu argi bat eskainiz. Hau guztia bereziki beharrezkoa izango da famili giroan komunikazio-harreman urriak eta ahozko estimulu eskasak jasotzen dituzten haurren kasuan.

Biei dagozkien jolas- eta iharduera-egoeretan helduen eta haurren arteko ahozko truke horiek, pixkanaka, haurrek eskolan edo eskolatik kanpo bizi izandako lehenagoko edo geroagoko egoerekin eta esperientziekin lotura esanguratsuak ezartzeko erabiltzea komeni da. Horrela, narrazio-egitura berri bat erabiltzen hastea eta beren buruaren eta ingurunearen ezagutza esanguratsua zabaltzea suspertzen da.

Zentzu honetan, bereziki baliagarriak dira ipuinak kontatzeko edo irudi-liburuak elkarrekin irakurtzeko sortzen diren egoerak. Egoera indibidualizatu edo talde txikiko egoera hauetan, garrantzitsua da hezitzaileek haurren arreta aktiboa bereganatzea, ikusten dutenaren edo kontatzen zaienaren esanahia eta honek beren ezagutzekin eta alde zuzeneko esperientziekin duen lotura uler ditzaten. Era berean, beren galderei erantzutea, beren iruzkinak onartzea eta, errealitateko alderdi berriak ulertu ahal izan ditzaten, iruzkin horiek hedatzea komeni da.

Ipuinak kontatu eta beraiekin irudi-liburuak begiratzeaz gain, beren kabuz manipula ditzaten uzten badiegu, posizio zuzenean jartzen eta orriak ordenean pasatzen ikasiko dute, horrek arreta guztia edukian jarraraziko die eta ipuin horiei buruz hitz egiteko eta helduei irakurtzeko eskatzeko gogoia eragingo die; eta hau izango da hizkuntza idatziaren ezaugarrietarako lehen hurbilketa.

Haurren hizkuntza garatzeko baliagarriak izango dira, gainera, lotarako eta altzo-jolasetarako ahozko tradizioko sehaska-kantak, abestitxoak eta lelotegiak, bai eta gure kultur ondareko poema, kanta eta jolas jakin batzuk ere. Horiek guztiek hizkuntzarekiko harreman afektibo eta ludiko bat susupertzen dute, hizkuntza erabiltzeko gogoia eta plazerra eragiten dute eta hizkeraren soinuei, erritmoari eta fonetikari dagozkioen alderdiak ezagutu eta hauetara ohitzea ahalbidetzen dute.

**Dena dela, hezitzaileek haur bakoitzaren hizkuntz garapenak izan ditzakeen erritmo, bereizitasun eta nahaste iragankor nahiz larri desberdinekiko sentikortasuna erakutsi behar dute, beren esku-hartzeak horiei egokituz.**

### 3.2.3.2- Musika-adierazpena

Musikak, hitzak eta mugimenduak bezalaxe, haurrari laguntzen dio bere zentzumenak garatzen hasten den unetik. Haurrak oso sentikorak dira musikarekiko, honek bete egiten ditu eta, oro har, oso erraz sentitzen dituzte honek transmititzen dituen sentsazioak.

Eduki-multzo honen bitartez, haurrek gorputzaren eta objektuen soinu-aukerak aztertzea, erritmo, doinu eta kanta anitzak ezagutzea eta, hauek entzutean eta produzitzean, gozatzea lortu nahi da.
---

Adin hauetako haurrek eguneroko jolas eta iharduera-egoeretan objektu anitzak manipulatzen dituztenean, sarritan aurkitzen ditugu manipulazio horren ondorioz sortutako soinua entzuten kontzentraturik (ontzi batean erortzen den ur-zorrotada, eraikuntza-pieza batek zoruan jotzen dituen kolpe erritmikoak, plater gaineko goilara, elkar jotzen duten bi objektu, mota desberdinetako paper-pleguen zimurdurak...). Batzuetan, soinu horiek beraiek eragiten dituzte behin eta berriz entzuteko (isiluneez etendako errepikapen erritmikoak sortuz).

Objektuen soinu-aukeren esperimenduzkoak, emozioen, gozamenaren eta plazerraren adierazpen-baliabide bat izateaz gain, haurren soinu-koalitateak ezagutzea ahalbidetzen die (ez dute soinu bera ateratzen zuzeko objektu batek eta plastizko edo kristalezko objektu batek...), bai eta musika-hizkuntzaren osagai erritmikoa ezagutzea eta honetara ohitzea ere; gauza bera gertatzen da norberaren gorputzaren soinu-aukeren esperimenduzkoekin (ahotsaren bidez, txaloen bitartez, animalia soinuak imitatuz eta abar soinu anitzak egitea...).

**Hezitzaileek haurren bat-bateko soinuen eta erritmoen produkzioan arreta jartzea eta hauek suspertzea komeni da, onarpen-begiraden eta adierazpenen bitartez animatzeko eta aurkakotasun berriak proposatzeko (motela-azkarra, gogorra-leuna); honi guztiari esker, beren aurkikuntzak zabaldu eta aberastu ahal izango dituzte.**

Kantua da musikara hurbiltzeko beste modu eskuragarri eta atseginetako bat; honek erritmo-, doinu- eta tonu-estimulu txikiak ematen ditu, musika-hizkuntzaren sentikortasuna barneratzen lagunduz.

Kantak hurrek entzun ditzaten erabili daitezke, ahots hutsez edo hezitzaileak joko duen musika-tresnaren baten doinu- edo erritmo-akonpainamenduarekin; baina, hezitzaileek eta hurrek elkarrekin kantatzeko ere erabili daitezke. Kasu honetan kantarekin batera mimika eta keinuak erabili daitezke gorputz-inplikazioa eta -adierazpena suspertzeko.

Era berean, musika-hizkuntza garatzeko baliagarriak dira poema errazen oihartzun-errepikapenak bezalako jolasak eta hezitzaileak errezitatutako ahozko tradizioko esaerak eta lelotegiak, txalo errimikoen bitartez lagundu daitezkeenak edo hurrek inprobisatutako doinuekin abestu daitezkeenak.

### Argazki 8

#### **3.2.3.3- Gorputz-adierazpena eta -komunikazioa.**

Gizakiek oinarrizko baliabide bat dugu, gorputz-hizkuntza, besteekin harremanak izateko eta komunikatzeko, aldi berean, gure barneko mundua adieraziz eta kanpoko munduan kokatzeko dugun modua ere adieraziz.

Multzo honetako edukien bitartez lortu nahi da hurrek gorputz-adierazpenaren oinarriko baliabideak sentitzea, ezagutzea eta erabiltzea (ekintza, keinua, mugimendua, jarrerak, begirada, ispiluaren aurreko egoera, gorputzen arteko kontaktu zuzena...), beren barneko mundua kanporatzeko (sentimenduak, emozioak, fantasiak, gurariak, pentsamenduak...) eta beren inguruko pertsonekin komunikazio-harremanak ezartzeko.

**Adin hauetan, gorputzaren adierazpen- eta komunikazio-dimentsioa garatzeko testuingururik egokiena mugimenduzko, objektuen manipulaziotzko eta inguruko pertsonetikoko elkarreraginezko jolas-egoerek osatzen dute, hain zuzen ere, Nortasun- eta Autonomi Eremuari eta Inguru Sozial eta Fisikoaren Eremuari loturik ahalbidetutakoek.**

Jolasaren bitartez, hurrek ondo pasatzen dute, aztertu egiten dute, esperimentatu egiten dute, besteekin harremanak ezartzen dituzte, imitatu egiten dute eta kanpoko mundua ulertzen dute. Beren gorputza mobilizatzen dute, kontrolatzen ikasten dute eta, beren mugimen-ahalbideak aztertzearekin batera, beren sentimenduak, emozioak eta premiak adierazteko dituzten gaitasunak aurkitzen dituzte; horrez gain, kanpoko errealitateari buruzko beren ideiak osatzen dituzte.

#### Argazki 9

Mugimenduzko eta objektuen bidezko jolas-egoera hauetan, jolas sinbolikoa eta eguneroko bizitzako ekintzen imitazio-jolasa sortzen dira (anbulantziak gidatzea, otsoarena egitea, panpinari jaten ematea edo loaraztea...); hauen bitartez hurrek kanpoko mundua nola ikusten eta interpretatzen duten adierazten dute, bai eta beren gurariak, larritasunak eta kezkak ere. Izan ere, sarritan ezin dituzte sentimendu hauek hitzen bidez adierazi eta hauek gainezka egingo liekete beren jolas-fantasietan irudikatzeiko aukerarik izango ez balute.

Hori guztia dela-eta, **garrantzitsua da hezitzaileek arreta guztia jarri eta hurrek beren eguneroko jolasetan eta ihardueretan adierazten duten gorputz-hizkuntza interpretatzea, horrela adierazten dituzten sentimenduak, emozioak, gurariak, premiak eta errealitatearen ikuskera antzemanaz. Eta gainera, hezitzaileek beren gorputzen adierazpen-baliabideez baliatu behar dute eta egokitu egin behar dituzte (keinua, gorputz-kontaktua, begiradak, jarrerak, gorputzaren tonua) haur bakoitzarekin komunikazio erraz bat ezartzeko.**

Horrekin batera, egoera emozional batzuen, animala jokabideen, eguneroko ekintzen eta gertakarien, edo fantasien imitazio-jolasak ere proposa daitezke. Horrela hurrek aurrera egingo dute sentimendu eta emozio batzuk (haserrea, poza, tristura...) intentzionalitate eta egokitzapen-maila handiagoz adierazteko eta ulertzeko gaitasunean, eta baita pertsona jakin batzuen eta eguneroko bizitzako objektu desberdinen ekintzak eta jokabideak, gorputz-keinuen eta mugimenduen bitartez komunikatu eta irudikatu daitezkeenak, ulertzeko eta adierazteko gaitasunean ere.

## Argazki 10

### 3.2.3.4- Adierazpen plastikoa eta bisuala.

Hizkuntza plastikoa eta bisuala adierazpen- eta komunikazio-bide bat dira, bai eta errealitatea euskarrietan eta tresna eta material anitzen bidez sortutako irudien bitartez irudikatze eta ezagutzeko modu bat ere.

Multzo honen helburua da hurrek beren inguruneko material desberdinak ezagutzea, esperimintatzea eta produkzio plastiko anitzetarako (marrazketa, pintura, modelaketa, papera urratu eta lekedatzea...) tresna eta euskarri gisa erabiltzea, beren sentimenduak, emozioak, fantasiak, ideiak eta pentsamenduak adierazteko, komunikatzeko eta irudikatze.
---

Garrantzitsua da haur-eskolak **haurren eskura euskarri, tresna eta material desberdinak jartzea, beren produkzio plastikoak eta bisualak eta beren esperientzia berriak burutzeko, esate baterako:** ehundura eta tamaina desberdinetako paperak, zoruan, paretean edo mahaian jarriak, arbelak, gardenkientzako azetatoak eta abar, hauetan markak utz ditzaten beren eskuekin eta hatzekin nahiz tresna eta material desberdinekin (argizari gogorak eta bigunak, klera, arkatzak, errotuladore eta pintzel lodiak, tenperak, belakiak, estanzazioak egiteko trapuzko panpinak, paper urratuak, lekedak...); nork bere eskuez eta hatzez, edo zapaltzeko, txertatzeko eta abarrerako moldeez eta objektuez modelatzeko buztina eta pasta; linternak eta zuloak eta kolore desberdinetako gardentasunak dituzten kaxak, horietatik argia proiektatzeko; bisore soil bat edo gardenki-proiektore bat eta abar.

Kontuan izan behar da, haurrak material horiekin dituen lehen kontaktuetan, batez ere horiek aztertze premia nagusitzen dela, bai eta manipulazio horrek eragiten dituen ondorioak egiaztatzeko plazerra eta jakinmina ere. Hau argi eta garbi ikus dezakegu lehenengoz arkatz batekin paperean edo hatzekin buztinean markak egiten dituztenean: behin eta berriz marratzen du

horrek eragiten dion plazer hutsagatik, bere hatzak buztinean sartzen ditu honek sortzen dizkion sentsazioak adieraziz eta bere jokaera malgua aztertuz, bi kasuetan marratzeko eta bere arrastoak antzemateko plazerra sentitzen duelarik.

Lehen marka hauek kontrolik gabeak dira eta, hasiera batean, ez dute errealitateko objektuak irudikatzeko asmorik. Pixkanaka, ordea, haurren produkzio hauekiko interesa duten eta egin dutenari buruzko galderak egiten dizkieten helduen laguntzarekin, esanahi bat eta izen bat emango diete, beren markek irudikatu nahi dituzten objektuen inolako antzik oraindik ez izan arren. Ondoren, gorago aipatutako esperientzia eta azterketa ugarietatik abiatuz, bizitza errealeko objektuak irudikatzeko asmoa erakutsiko dute eta beren markek objektu errealean gero eta antza handiagoa izango dute, aldi berean, beren sentimenduak, emozioak, ideiak eta pentsamenduak adierazteko eta komunikatzeko bide bat izango direlarik.

Esperientzia hauek, gainera, sentsazio eta pertzepzio ugari (ukimenezkoak, ikusmenezkoak, usaimenezkoak...) eragiten dizkiete. Hauek haurrei beren ingurunea hobeto ezagutzen laguntzen diete (argia, koloreak, formak, ehundurak, usainak eta abar ezagutzea) eta, ondorioz, honetaz baliatuz espresatzeko gogo gero eta handiagoa izaten dute.

## Argazki 11

Aldi berean, prozesu honetan guztian, haurrek ikusmenaren eta mugimenaren koordinazio-trebetasunak hobetzeko eta erabiltzen dituzten tresnak hobeto menperatzeko aukera dute eta, horri esker, beren autoestimazioa sendotzen dute, beren produkzioez eta beren abilezia gero eta handiagoaz harro sentitzen direlarik.

**Dena dela, funtsezkoa da hezitzaileek haur bakoitzaren produkzioak eta garapen-erritmo desberdinak errespetatzea, helduen artean normalak diren emaitza estetiko-artistikoak eskatu gabe; aitzitik, hezitzaileek haurren azterketak estimulatu behar dituzte eta burutzen dituzten ihardueretan eta produkzioetan beren komunikazio- eta irudikapen-gaitasuna gozatzeko, hedatzeko eta hobetzen lagundu behar diete.**

**3.2.3.5- Matematika-hizkuntza.**

Mintzagai dugun adinean, ezin da berezko helburu edo eduki matematikoez hitz egin, arrazonamendu-maila jakin bat eta adimenaren abstrakzio-maila jakin bat inplikatzeko baitute; eta hauek ez datoz bat haur hauen zentzumenen eta mugimenaren egoerarekin.

Halere, matematika-hizkuntzarako hurbilketa batez hitz egin dezakegu, alegia matematikako lehen nozioak ezagutzeko baldintzak sortuko dituen matematika-hizkuntzaz.

**Hurbilketa hau Eremu honetako eta “Nortasuna eta Autonomia” eta “Inguru Fisikoa eta Soziala” izeneko Eremuetako beste multzo batzuen berezko helburuen eta edukien bitartez burutzen da. Jadanik aipatua dugunez, helburu eta eduki horiek haurren ekintzaren bitartez lortzen dira, hauek beren inguruneko pertsonekin eta objektuekin elkarreraginean aritzen direnean.**

Haurrek beren oinarrizko premiak ebatzen laguntzen dutenean, lekuz aldatzen direnean eta mugimenduzko jolasak egiten dituztenean, beren gorputza aztertzen dutenean eta inguruko objektuak manipulatzeko dituztenean, produkzio plastikoak lantzen dituztenean eta abar, matematikako lehenengo nozioak ezagutzeko alde aurrekoak, baina derrigorrezkoak, diren ikaskuntza jakin batzuk egiten ari dira. Ondokoak bezalako aurkikuntzez ari gara: antzeman daitezkeen objektuen ezaugarri fisikoak, euren eta objektuek espazioan betetzen duten lekua, eguneroko ihardueren denbora-ordena, kausa-efektu erlazioak eta abar.

**Haurrek hauek guztiak aurki ditzaten, hezitzaileek, espazioaren eta denboraren antolamendu egokiaz gain, objektu eta material anitzak eskainiko dizkiete, zentzumen- eta mugimen-estimulu ugari eragingo dizkieten objektu eta material anitzak alegia, hauek autonomiaz manipulatzeko aukera emanez.**

Argazki 12

Materialak ez dira merkatuan dauden jolas didaktikoetara mugatu behar; objektu naturalak gehitzea ere komeni da (harriak, itsas-maskorak...), bai eta eguneroko bizitzako beste objektu asko ere (arropa-pintzak, kafeontzien gomazko aroak, kaxak, itxigailu-mota



desberdinetako ontziak, puntua egiteko artilezko konoak, ehunen edo hormak estaltzeko paperen erakusgaiak...). Hauen bitartez hurrek beren ezaugarri fisikoak (kolore, tamaina, ehundura, forma, luzera, soinu, zapora, koalitate termiko eta usain desberdinak, zura, beira, kortxoa, goma, metala, kartoia, ehuna eta abar bezalako sustantziak eta abar) antzemateko eta horiekin ekintza ugari (ireki-itxi, bete-hustu, lerrokatu, metatu, kiribildu-askatu, lotu-banandu, urundu-hurbildu, bildu-teinkatu, lekualdatu, garraiatu eta abar) burutzeko aukera izango dute.

Objektu eta material desberdinekin egiten dituzten ekintzen bitartez, hurrek horien arteko antzekotasun- eta desberdintasun-erlazioak ezarriko dituzte, beren ezaugarri koalitatiboetako batean oinarrituz (nik handiak nahi ditut, hauek bigunak dira, hemen zurezkoak gordetzen dira...) eta asko edo gutxi bezalako nozioak antzematen hasiko dira. Era berean, mugimen-jolasen eta metaketa- eta eraikuntza-jolasen bitartez espazioaren mugak eta dimentsioak ezagutuko dituzte, bai eta ondokoak bezalako nozioak ere: hurbiltasuna-urruntasuna, barrua-kanpoa, goia-behea, itxia-irekia...

Kontuan izan behar da lehen nozio hauek oraindik ekintza-nozioak besterik ez direla eta, ahozkatzeko gai izan baino lehen, beren eguneroko bizitzan erabiltzen dituztela. Horregatik, hezitzaileek arreta jarri eta hurren ekintzak behatu behar dituzte, ekintza-mailan era honetako zein nozio maneiatzen dituzten antzemateko eta laguntzeko, batzuetan, beren ekintzei hitzak jarri eta, beste batzuetan, beren pertzepzio- eta logika-garapenean aurreratzen lagunduko dieten erronka txikiak planteatuz.

### 3.3- EBALUAZIOA

Orain arte burututako orientabideen arabera, alegia OCDn eta Ebaluazio-Aginduan (1993ko maiatzaren 5eko EHAA) jasotako arabera, **irakatsi eta ikasteko prozesuaren diseinuari buruzko gogoeta egitea eta hobetzea ahalbidetzen duen tresnatzat** hartu behar da ebaluazioa. **Ezin da praktikatik banandu**, eta erabakiak hartu ahal izateko behar den informazioa jasotzea eta proposamenak taldearen interesei eta haur bakoitzaren gaitasunei egokitzea ahalbidetzen du.

Ebaluazioak, hasteko, kontuan hartzen ditu haur bakoitzak dakiena, haur bakoitzari interesatzen zaiona eta irakasle bakoitzak egin dezakeena; eta hortik abiatuz, datu hauekin bat datozen proposamenak egiten ditu, ezagutza berri baten eraikuntza ahalbidetu eta bultzatzeko.

**Haur bakoitzarengan ikasteko prozesu konstruktibo bat ebaluatzea ez da zeregin erraza. Alde batetik, nabarmen gertatzen ari denaren behaketa egin behar da eta, bestalde, interpretatzen jakin behar da, hezitzaileak haur bakoitzaz eta ebaluazioaren helburu diren ikaskuntzak teorikoki burutzeko moduz duen ezagutzaren arabera.**

Ebaluazioak profesional enpatikoak behar ditu, hurren ikaskuntzaren konplexutasunarekiko entzutezko eta errespetuzko jarrera dutenak eta helduek ere egokitzeko eta ikasteko premia dutela onartzen dutenak.

Eta honetako irakasleek badakite beren geletan erabili ohi duten tresna pribilegiatu bat dela bertan gertatzen den guztia eta haur bakoitzak egiten duena behatzea; eta beraz, hau dugu ebaluazio-tresna nagusia.

Behaketa ebaluazio-tresna planifikatu bat izatera irits dadin, alde batetik, datu esanguratsuen bilketa eta gelan martxan jarritako ekintzaren ondorioak sistematizatu behar dira eta, bestalde, aldaketara eta hobekuntzara bideratutako eztabaida- eta gogoeta-tresna baliagarria izan behar du.

Horrela, hezkuntzaren ekintzaren behaketa eta plangintza izango dira hau gogoeta-ekintza bilakatuko duten tresnak; eta hauek diseinatzen, praktikan jartzen eta ebaluatzen dituen hezkuntza-ekintza honetako profesional bilakatuko dutenak.

### **3.3.1- ZER EBALUATU.**

Arrazonamendu beraren arabera nabarmena denez, profesional bakoitzak planifikatu duen guztia ebaluatu behar da, haur guztientzat proposatutako helburuak lortzera bideratutako ikasteko prozesua burutzeko hezkuntzaren esku-hartze gisa.

Prozesu bakoitza desberdina denez, klase bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta haur bakoitzak bere erritmo partikularra du. Zail da orokorki zer ebaluatu erabakitzea baina, gaitasunak ebaluatu behar ditugunez eta hauek bereganatzeko modu orokor batzuk izaten direnez, jarraibide batzuk eskaintzen dira hezkuntzaren esku-hartzea eta, beraz, profesional bakoitzak egin behar duen ebaluazio zehatza diseinatzen lagundu dezaketen alderdi eta alor batzuei buruz.

Argazki 13

**Baste batzuen artean, ondokoen arian ariko garapena eta lorpena landu eta ebaluatu behar dira**

- Sentsazio desberdinak: egoera emozionalak, egoera fisiologikoak, muskuluen tonua, oreka, mugimenduen barreiatzea.
- Pertzepzio desberdinak: bere gorputz-atalak ezagutzea, beste pertsona batzuekin (ikaskideak, helduak) gorputz-elkarrizketa izatea.
- Koordinazio desberdinak: ikusmenarena eta mugimenarena, begiarena eta eskuarena.
- Sentimendu desberdinak: arauak barneratzea, espazioaren eta denboraren nozioa, onartua eta baloratua izateko premia.
- Osasun- eta ongizate-azturak: zainketa fisikoa (garbiketa, esfinterren kontrola, segurtasun fisiko pertsonala), elikadura-kontrola, loaren erregulazioa, higiene pertsonala.
- Famili eta eskola inguruneke ohiko objektuen erabilera eta azterketa: jostailuak...
- Inguruko objektuak zaintzeko eta gordetzeko jarrerak.
- Nork bere rola eta beste pertsonena ikasteko besteekiko elkarreragin-prozedurak, elkarbizitza-arauak.
- Beren ingurunean autonomia gero eta handiagoa ahalbidetuko dieten segurtasun eta lehia-sentimenduak.
- Beren jokabideen kontrola ingurunearekiko elkarreraginean.
- Bere ingurune naturalari dagozkion liburu eta irudi esanguratsuen behaketa.
- Ahozko hizkuntza komunikazio-tresna gisa.
- Unean uneko egoerei lotutako ahozko trukea.
- Eskola-ingurunetik kanpo gertatutako gertakariei buruz hitz egiteko edo harreman esanguratsuak ezartzeko ahozko hizkuntza erabiltzea.
- Irudiak, ipuinak irakurtzea.
- Erritmoa duten mugimenduak.
- Ahotza tresna gisa.
- Kantak, erritmoari eta tonuari jarraituz.
- Gorputzaren, objektuen eta musika-tresnen soinu-baliabideak.
- Gorputzari dagokiona, afektiboa dena, erlazionala dena eta kognitiboa dena biltzen duten sentsazioak eta prozesuak lantzeagatik gozatzeko azturak.
- Jolasaren bitartez ikasteko prozedurak eta jolas sinbolikoa erabiltzea, errealtatea ezagutzeko tresna gisa.
- Gaitasun sortzailea.
- Material desberdinak aztertzeke trebetasuna.
- Koloreak, formak, ehundurak, usainak eta abar ezagutzeko prozesuak.
- Ikaskuntza instrumentalak laguntza grafiko gisa.
- Objektuen arteko loturak eta horiekin burutzen dituen ekintzen kausa-efektu fenomenoari buruzko gogoeta egitea.
- Hirugarren esperientzi eremua osatzen duten hizkuntza desberdinen komunikazio-, kontzeptu- eta irudikapen-eremua.

Haur-eskolarako ebaluazio-teknika egokienak behaketaren sistematizazioa ahalbidetzen dutenak izango dira: gelako egunkaria, haurren produkzioak, errejistro-orriak.

#### Argazki 14

Elkarbanatutako ebaluazio baterako laguntza gisa, bideo- edo audio-grabaketak eta kanpo-behaketa erabili daitezke.

#### 4- HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK BI URTEKOEN GELETAN.

Jadanik adierazi denez, haur-garapenaren lehen urteak haur bakoitzak garapen-prozesuari ekarritako desberdintasun indibidualek sakonki baldintzatuta daude, etengabeko eboluzio-faseak jarraitzen dituzten arren. Desberdintasun horiek beren ahalmen psikobiologiko indibidualen, ingurune sozialaren ezaugarrien, eskaintzen zaien estimulazioaren eta helduek betetzen duten funtzioaren, bereziki gurasoen eta hezitzaileen funtzioaren konbinazio bat da.

Heltze-erritmo desberdin hauen ondorioz, haur guztien garapenaren une jakin batzuetan hezkuntza-premia iragankor batzuk agertzen dira; eta hauek zainketa pertsonalaren eta hezkuntza-arreta egoki baten bitartez prebenitu eta konpentsa daitezke.

**Beraz, ez da erraza garapenaren lehen adinetan garapen-prozesuari berari lotutako hezkuntza-premia iragankorrek eta hezkuntza-premia berezizat har daitezkeenak bereiztea.**

2 urtekoen geletan eskolatuko diren haur guztiek izango dituzte, jadanik aipatu dugunez, oinarrizko premia jakin batzuk, garapenaren unearekin eta bakoitzak aurkezten duen eboluzio pertsonaleko erritmoarekin bat datozenak. Halere, gaur egun familiek nahaste batzuk gero eta lehenago antzemateko aukera dute eta, beraz, oso adin txikietan hezkuntza-premia bereziak ezagutu, eta minusbaliotasunak konpentsatzera zuzendutako hezkuntza-arreta eskaini daiteke.

Hori dela-eta, gerta daiteke 2 urteko geletan eskolatzen diren haurren artean jadanik antzemandako nahaste edo minusbalia batetik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituen norbait aurkitzea. Mugimen-nahaste bat edo garapenaren atzerapen bat izan daiteke, entzumenaren edo ikusmenaren defizit bat, hezkuntza-premia jakin batzuei lotutako kromosomopatiak, edo gizarte- edo famili giro kaltetu bateko haurren nahasteak izan daitezke; hemen aurkezten diren **hezkuntza-premiak indibidualizatuak eta izaera anitzekoak dira**. Kasu hauetan, sarritan, eskolatzeko-unea iristen denean hezkuntza-premia bereziak jadanik antzemanak daude eta gelako irakasleak orientabide eta aholku zehatzak jaso ditzake eskolatzeko-baldintzei eta lan-programa egokienari buruz.

Haur hauentzat une honetan hasten den gizarteratze-prozesua bere garapenaren indartzailea da; gainera, beren premia espezifikoak bat datoz adin bereko beste edozein haurren oinarrizko premiekin:

- zainketa pertsonalaren eta afektiboaren premia dute
- gizarteratzeko eta besteekin ikasteko premia dute
- autonomia pertsonala garatzeko premia dute
- mugikortasuna eta beren gorputzaren ezagutza garatzeko premia dute
- ingurune fisikoa ezagutzeko eta ulertzeko premia dute
- besteekin komunikatzeko gaitasunak garatu behar dituzte
- beren barneko mundua eta beren afektibotasuna garatzeko premia dute

Minusbaliotasunak dituzten haurren hezkuntza-arretarako orientabide orokorrak, printzipioz, bat datoz 2 urteko edozein haurrentzako beste atal batzuetan planteatzen den hezkuntza-arretarekin. **Nahaste eta premia berezi zehatzen arabera, hezkuntza-premia bereziak dituen haur batekin hezkuntzak jarraitu behar dituen bideak, talde osoari zuzendutako hezkuntza-iharduera globalean sartuta egongo dira.**

2 urteko geletan hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak daudenean, ondoko alderdiei arreta berezia eskaini behar zaie, taldearen alderdi garrantzitsuekin bat etorri arren, behaketa espezifiko bat eta erabaki zehatzak hartzea beharrezkoa baitu.

- eskola-testuingurura egokitzeko aldia, beste haur batzuenak baino denbora gehiago behar dezakeena;
- esfinterren kontrolaren zainketa eta irakaskuntza;
- beste haur batzuekiko, objektuekiko eta jolasekiko elkarreragina;
- oinarrizko higiene- eta elikadura-azturen irakaskuntza;
- Irakatsi eta ikasteko giroaren antolamendua, inguruneari koherentzia emango dioten eguneroko iharduerak eta gertakariak ezar daitezzen, bertan kokatzen lagunduz;
- eskaini behar zaien arretan elkarlanean aritu daitezkeen familiekiko eta zerbitzuekiko harremana.

Egoera hauetan zenbait gauza kontuan hartzea komeni da:

**HPBak DITUZTEN HAURRAK 2 URTEKOEN GELETAN ESKOLATZEN DIRENEAN, KOMENIGARRIA DA:**

- Haurraren hezkuntza-premia bereziak zein diren ezagutzea, hezkuntza-iharduera egokitzeko.
- Familiarekin harreman estua izatea, bere premiak ezagutzeko eta egokitzapen-prozesua elkarrekin baloratzeko
- Zonako Pedagogi Aholkutegiko (PAT) talde multiprofesionalarekin harremanetan jartzea, haurra eskolatzeko baldintza egokiak zehazteko
- Ikastetxeko bertako laguntzako irakasleak: aholkularia, laguntzako irakasleak, logopeda eta abar..., laguntza handia eskaini dezakete bere eskolatzeko helburuen egokitzapenean eta haurraren elkarreragina izateko moduan.
- Ikastetxean egoteko ordutegia malgutzeko premia aurreikustea, haurrak agian medikuntza-zentro edo laguntza-zentro batera joan beharko baitu, bere arazoa tratatzera.
- Material jakin batzuk egokitzea edo eraikuntza-oztopoak kentzea.
- Bere garapen-erritmoa errespetatzea eta bere eboluzio-unearen premiei egokitzea. Hau interesgarria da haur guztientzat eta, are garrantzitsuagoa, hezkuntza-premia bereziak dituztenentzat.

## **5- HIZKUNTZAREN TRATAERA.**

Hizkuntza ezagutu eta erabiltzen hastea 2 urte inguru dituzten haurren lorpen garrantzitsu eta liluragarrietako bat da.

Adin hauetan, ahozko komunikazio-munduaren konkista honetan parte hartzaile eta lekuko pribilegiatu izateko aukera dugu. Gozatzeko, komunikatzeko plazerra elkarbanatzeko, elkarrekin hitz egiteko, gauzak kontatzeko eta elkarri entzuteko aukera ezin hobea dugu.

Neurri handi batean, haur-hizkuntzaren aurrerapen sendo eta harmoniatsuak helduek dugun haurrekin gozatzeko eta elkarbanatzeko gaitasun hori du oinarritzat.

Hizkuntza ezaugarri espezifiko batzuk dituen gaitasun soziokognitibo bat da; baina, 2 urte inguruko adinean, hizkuntza bereganatzeko baldintzak eta bermeak haurrek beren garapeneko beste edozein eremutan aurreratzeko behar dituztenak dira.

Honek, ziurraski, hala izaten jarraituko du ondorengo eskolatzeko-urteetan; baina orain azpimarratu nahi duguna da, 2 urte inguru dituztenean, haurrek hizkuntz gaitasuna arrakastaz lortzea hezitzaileak komunikazioan eta harremanetan ematen dien kalitateari eta goxotasunari lotuta dagoela. Horrez gain, haurrek gaitasun hori lor dezan, komunikazioa eta trukea sustatuko dituen harrera-, onarpen- eta errespetu-giro bat ezartzea bere lan-tresna nagusia dela, hots, bere baliabide didaktiko indartsuena dela jakin behar du hezitzaileak.

Haurrek hobeto hitz egiten dute eta hobeto hitz egin nahi dute helduek eurekin hitz egiten gozatu egiten dutelako, helduek beraiek esan nahi dutena benetan aditzen dutelako.

Honek berdina balio du hizkuntza orokorki bereganatzeko, zein haurrek famili giroan ezagutzen ez duen edo ia ezagutzen ez duen bigarren hizkuntza bat bereganatzeko: helduarekiko identifikazio-prozesuek funtzio nagusi bat betetzen dute hemen. Hezitzaileari afektiboki lotuta dagoen eta eskola ongizate-espazio gisa bizitzen duen haur batek gogoz bizitzen du biek (hezitzaileak eta eskolak) erabiltzen duten hizkuntza.

Hezkuntza elebidunaren ezarpena EAEko hezkuntza-sistemak izan dituen berrikuntza nagusietako bat da, honen ondorioz eskola-elkarteak (hezitzaileak, gurasoak, administrazioa...) premia berriei aurre egin behar izan baitio, mekanismo eta baliabide berriak aztertuz eta abiaraziz.

Adin hauetako haurrei dagokienez, gure zeregin nagusietako bat da gure solaskide txikien artean euskerarekiko lotura afektiboa eta honen erabilera-kultura bat ezartzea, hizkuntza hau eta gaztelera bereganatzea eta menperatzea ahalbidetuz.

Bi hizkuntzen bereganatze- eta garatze-prozesuetan eragina dute hizkuntz jatorri desberdinek eta eskolan sartzean haur bakoitzak duen famili hizkuntzaren jabetze-mailak.

Famili eta gizarte-giro erdalduneko haurrentzat eta gure erkidegoan aurkitzen diren gutxiengo etniko-linguistikoetako haurrentzat euskara bigarren hizkuntza da; eta hauei haur-eskolan sartzeak etxeko hizkuntzatik eskola-hizkuntzara aldatzea ekarriko die.

Gaur egun, adituen iritziz, bigarren hizkuntza honen ikaskuntzak lehenbailehen hasi behar du, ahal izanez gero Haur Hezkuntzan.

Halere, hurrek bigarren hizkuntzaren ikaskuntza inposaketatzat edo ordezkapen-ahalegintzat ez hartzea eta, aitzitik, aberastasun gisa hartzea hezitzaileen sentikortasun-mailaren araberakoa izango da; hauek hurrei pixkanaka ingurune berrira eta hizkuntza berrira moldatzea ahalbidetu behar diete.

Bigarren hizkuntza sartzeak ez du lehenengoarekiko haustura bat inplikatu behar. Haurrak ez du zentsuratua edo baztertua sentitu behar eskolak hitz egiten ez duen hizkuntza bat hitz egiten duelako. Ama-hizkuntza gaztelera denean, hezitzaileek, haurren lehen hizkuntza ezagutzeaz gain eta beraz hitz egiten dietenean ulertzeaz gain, ez dute gaitzetsi behar eta, beharrezkoa bada, erabili egin beharko dute ulertarazteko. Hurrek bigarren hizkuntzaren maila egoki bat lortzen duten neurrian, hezitzaileak hurrekin dituen ahozko trukeetan euskera bakarrik erabili ahal izango du.

Ardatz egituratzailea komunikazioa ezartzea eta honi eustea izanik, ondoren zenbait orientabide proposatzen ditugu hezkuntza-taldeari eguneroko praktika orientatzen laguntzeko eta hurrek prozesu hau postiboki biziko dutela ziurtatzeko:

**- Gelako harremanak errespetuzko eta lotura afektibozko giro batean ezartzea, haurra bere osotasunean onartuz (maila kognitibo-emozionala), bere garapen-gaitasunean konfiantza izanez, bere autonomia sustatuz eta bere ekimenen nahiz bere proposameneren burutzapena suspertuz.**

Hizkuntza eta hizkuntzarako guraria haurrentzat zentzua eta bizipen-balioa duten iharduera-testuinguruetan garatzen dira. Oihartzun emozionala duen eta haurren interesa, arreta eta kontzentrazioa erakartzeko gai den oro da imajina dezakegun “hizkuntzaren arloko” ikasmaterial onena.

Argazki 15



**- Elkarreragin-egoera naturalak aprobetxatu, ahalbidetu eta sortzea.**

Gaztelera bigarren hizkuntza gisa bereganatu eta garatzea, kasu gehienetan, hizkuntza honek gizartean duen presentzia handiak indartuko du; eta adin hauetan, bigarren hizkuntza euskera denean kontuan hartzen diren arau berberak hartu beharko dira kontuan, hizkuntzaren trataera orokorrerako.

Une honetan, haurren eta hezkuntza-erakundearen arteko harremana haurrak etxean eta familiarekin duenaren antzekoa da eta, beraz, bigarren hizkuntzaren ikaskuntza ahalik eta modu naturalenean sar daiteke, elkarrizketaren esparruan eta haurarentzat iharduera-modu normalak diren jolas-ihardueretan sartuta. Horrela, haurrek lehen hezkuntza bereganatu zuten moduaren antzera bereganatzen dute bigarrena ere.

**- Haurren ama-hizkuntza edozein izanik ere, hizkuntz aniztasuna onartu eta baloratzea, era berean haurren ikaskuntza-erritmoak ere anitzak izan daitezkeela onartuz.**

Hezitzaileari dagokio haur bakoitzaren isiltasun-denbora errespetatzea; hau da, haur bakoitzak bigarren hizkuntzan espresatzen hasteko behar duen denbora errespetatzea. Denbora hauek ez dira berdinak haur guztien kasuan eta, horiek iraun bitartean, eta komunikazioa ez eteteak beste edozein alderdiren gainetik nagusitu behar duela kontuan izanik, helduei dagokie haurrek beren ama-hizkuntzan espresatzeko duten beharra onartzea.

**- Gelako espazioa eta bere erabilera diseinatzea, berdinak direnen arteko harremana, talde txikien eta hezitzailearen arteko harremana eta honen eta haurren arteko harreman indibiduala sustatu eta ahalbidetzeko.**

Argazki 16

Haurren ahozko produkzioari berari dagokionez, komenigarria dirudi beren hizkuntz aurrerapena ahalbidetu dezaketen **JARRAIBIDE METODOLOGIKO** batzuk kontuan hartzea:

**Hezitzaileak bere hizkuntza moldatu behar du mezua haurren ulermen-gaitasunari egokitzeko.** Hizkuntz elementu berrien etengabeko eta arian ariko gehitzea jadanik ezagutzen eta ulertzen diren hizkuntz elementuetan oinarrituz egiten da beti; eta hauek gidatu behar dute, hain zuzen ere, hezitzaileak betiere egin behar duen moldatze-lan hori, haurraren mezua hurrengo esku-hartze komunikatiboaren abiapuntutzat hartuz.

Parafrasia erabiltzea; hau da, mezuak beste hitz batzuekin formulatzea hurrei mezuen esanahia ulertzen lagundu diezaiekeen beste estrategia bat da. Hitza hizkuntzaz kanpoko beste elementu batzuekin (keinuak, tonuak, laguntza bisualak, mimika...) laguntzea ere hizkuntza ulertzen laguntzeko beste estrategia on bat da.

Hezitzaileak ulertarazteko ahalik eta estrategia gehienak erabili behar dituen bezala, **ahalik eta estrategia gehienak erabili behar ditu haurrak adierazi nahi duena ulertzeko, euskeraz espresatzeko egiten dituen ahaleginak adoretuz eta positiboki baloratuz eta, haurrek esan nahi dutena adierazteko hitz egokiak aurkitzen ez dituztenean, elkarrizketari eusteko euskarri egokiak eskainiz.**

Hain zuzen ere, haurren euskeraz espresatzeko gurari horrek, berezko balio aparta du. **Bere hizkerak izan ditzakeen akatsek eta okerrek haurra hizkuntzaren eraikuntza-prozesu aktibo bat burutzen ari dela adierazten dute,** eta ez dira hartu behar berehala zuzendu beharreko elementu negatibotzat.

Izan ere, hizkuntza bat bereganatzeko prozesuan haurrak ez dira izaki pasiboak, aitzitik, beren inguruan entzuten duten hizkera aktiboki bereganatzen eta etegabe interpretatzen ari dira. Horretarako, hizkuntza horren funtzionamenduari buruzko hipotesiak lantzen dituzte, bai hitzen esanahiei dagokienez, bai eta bere alderdi fonologiko, morfologiko, sintaktiko, pragmatiko eta tonalei dagokienez ere; eta eguneroko erabileran probatzen ditu. Akats hauek azkarregia den zuzenketa-exijentzia baten bitartez edo artifizialak diren errepikapen zuzenen bidez estali nahi izateak arriskuan jartzen du haurrarekin ezarritako harremana, elkarrizketa eta komunikatzeko guraria eteten dituelako. Gainera, horrela, haurren hizkuntz aurrerapenaren seinale jatorrenak baztertzen dira. Bestalde, duela gutxiko ikerketek adierazi dutenez, zuzenketa horiek ez dute inolako eraginik hizkuntz gaitasunaren bereganatze-prozesuan.

Dena dela, argi eduki behar dugu haurren ulermen-gaitasunari egokitutako hizkuntza bat ez dela hizkuntza pobrea. **Hezitzaileak hizkuntz eredu aberatsak eskaini behar ditu eta berak ere hizkuntz eredu aberatsa izan behar du:** hurrei beldurrik gabe aurkeztu eta eskaini behar zaizkie mezu argiak, tonu zainduak eta nabardurez eta aldagaiez betetako hizkuntz material aberatsa. Ez zaie aberastasun hori exijitu behar, aitzitik, aukera ugariz betetako hizkuntzaren mundua sentitzen eta susmatzen utzi behar zaie.

## **6- GARRANTZI BEREZIA DUTEN UNEAK.**

### **6.1- EGOKITZEKO ALDIA.**

Egokitzeko aldia deritzogu haur bakoitzak, ikuspegi emozionaletik bere familiarengandik banantzeak suposatzen duen galeraz eta irabaziaz jabetu, banaketa hori bere baitan positiboki ikusi eta horrentzako konpentsazioak aurkitzeko behar duen denborari.

Haurra da banantzen dena, baina gurasoengandik edo tutoreengandik banantzen da eta, beraz, hauek ere egoera berri honetara moldatu behar dute. Beren igurikapenak, beren estuasunak eta beren beldurrak haurrari pasatzen dizkiote, konturatu gabe bada ere.

Haurrek aldaketa hau ulertzeko eta egokitzeko egiten duten ahalegina onartu behar dela egia bada ere, egia da baita sozialki aurreikusitako aldaketa bat dela eta, beraz, haurrek aldaketa gertatu baina askoz ere lehenagotik espero dute; eta sarritan, helduek sortu dituzten igurikapenen arabera, gogo handiz espero dute, nolabaiteko kezka ere sentitu arren.

#### Argazki 17

Hezkuntza-taldea eta eskola bera ere iritsi berriak diren ikasle horiei egokitu behar zaizkie; eta, zehazki 2 urtekoen geletan, batzuetan igurikapenak nahasi samarrak edo anibalenteak izaten dira.

Ez dugu ahaztu behar haurra eskola-bizitzan integratzea dela egokitzeko aldiaren azken helburua; horretarako, ordea, eskola haurren premiei egokitu behar zaie eta irakasleek beren iharduerak haur bakoitzari egokitu behar dizkiote.

Proposatutako helburua lortzeko prozesu hau behar bezala gara dadin, arreta jarri behar da eta haurraren bizitzako une horretan esku hartzen duten alderdi guztien iharduera egokia planifikatu behar da. Familiek, irakasleek eta, oro har, haurrei lotutako heldu guztiek jokabide lasaia eta heldua izan behar dute, aldi hau ahalik eta modu koherenteenean gara dadin.

**ESKOLATZEAREN HASIERAK HAURRARI ONDOKOAK EKARRIKO DIZKIO:**

- Aldaketa.
- Kanpotik ezarritako ordutegia.
- Espazio ezezagunak eta, beraz, segurtasuna ziurtatzen ez dutenak.
- Beren ingurunetik irten eta beren afektuetatik urruntzea.
- Pertsona esanguratsuengandik banantzea.
- Beste heldu batzuk eta beraiek bezalako beste batzuk ezagutzea.
- Inposatuta, beste haur batzuekin harremanetan jartzea.

Ez dira gauza bera egokitzea eta etsitzea. Haur batzuek, arrazoi desberdinak direla-eta, saihestezinak izan ezik beste arazorik ez izatea edo ez sortzea erabakitzen dute eta eskolara joan beharraren aurrean etsi egiten dute, baina beren jokabideak eta beren jarrerak erakusten dute egokitzeko aldia oraindik gainditu gabe dutela.

Bakoitzak duen famili esperientzia oso garrantzitsua da bereizketa hau egiteko orduan. Oreka pertsonala eta autonomia nahikoa duten haurrek, erraztasun handiagoa dute denbora laburrean eta ondo egokitzeke. Alderantziz, autoritarismo-giroan edo gehiegizko babes-giroan hezitako haurrei zailagoa egiten zaie egokitzea eta, beraz, aldi hau luzeagoa gertatzen zaie.

Haur bat egokitu dela esango dugu esperientziak trukatzeko gai denean, etxean eskolan gertatutakoaz hitz egiten duenean eta eskolan etxean bizitakoaz eta gertatutakoaz hitz egiten duenean eta irakaslearekiko eta ikaskideekiko komunikazio afektiboa eskaintzen eta onartzen duenean. Hala gertatzen denean, normalean haurra seguru agertzen da, klaseko dinamikan parte hartzeko gogoz, espazioa eta materialak gehiago eta hobeto erabiltzen ditu eta taldean eta taldearekiko harreman irekiagoa eta naturalagoa du.

Eskolatzeak aldaketa dakar hala haurrentzat nola haur bizi diren helduentzat.

#### **ESKOLATZEAREN HASIERAK GURASOEI ONDOKOAK EKARRIKO DIZKIE:**

- Seme/alabarengandik banantzea.
- Seme/alabaren heziketa ezezagun batekin elkarbanatzea.
- Bizitzako aldi berri baten hasiera markatzen duen egoera berri batera egokitzea.

#### **GURASOEN EGINBEHARRAK DIRA**

- Ikastetxea hezitzen duen tokizat hartzea, eta ez zaindu edo babesten duen tokizat.
- Elkarlanean aritzeko prest egotea.
- Egokitzeke aldiak beren seme/alabarentzat, irakaslearentzat, ikastetxearentzat eta eurentzat suposatzen duenaz jabetu eta horren arabera jokatzeko.
- Informazioa eskatzea eta ikastetxearekiko eta irakaslearekiko komunikazio erraza eta beren kezkek, beldurrak eta gurariak errespetatzen dituen exijitza.

Irakasleak aldi honetako elementu garrantzitsu eta nagusi bat dira.

#### **ESKOLATZEAREN HASIERAK IRAKASLEEI ONDOKOAK EKARRIKO DIZKIE:**

- Haur bakoitzari egokitutako prozesua, alde aurretik itundua.
- Ordutegiak malgutu beharra.
- Beren jarrerari dagokionez kontuz ibiltzea.
- Beren iharduerak koherentziaz hornitzea.
- Espazioak egokitu eta mugatzea.
- Materialak antolatzea.
- Haur hauen premiei profesionalki egokitzea (curriculum desberdinak).
- Kideen aukeraketa librea eta lotura erlazional eta afektiboen ezarpena ahalbidetzea.

#### **EGOKITZEKO ALDIAN IRAKASLEEK DUTEN FUNTZIOA**

- Aditzeko eta behatzeko jarrera izatea.
- Erreferentziako pertsona heldua izatea.
- Jarrera afektiboa, harkorra, lasaigarria et aktiboa izatea.
- Jarrera tinko eta argia izatea.
- Elkarreaginak ahalbidetzea.

### **KOMENIGARRIA DA**

- Laguntza-funtzioa betetzeko beste heldu baten presentzia ahalbidetzea, haurrentzat erreferentziako pertsona heldua gelako tutorea izango delarik.
- Gelan aditzeko eta laguntzeko jarrera afektiboa izatea.
- Haur bakoitzari bere izenez deitzea.
- Haurrek izan ditzaketen estuasunak ulertzea eta errurik ez botatzea.
- Jarrera erlaxatua, lasaia, hurbila eta malgua erakustea.
- Haur bakoitzaren famili hizkuntza errespetatzea.
- Haurrari gelan bere famili inguruneari lotutako objektuak (garrantzi afektiboa dutenak) sartzen uztea.
- Ahotsaren tonua zaintzea.
- Malgua izatea, gure interesak haur bakoitzaren eta taldearen benetako ahalbideei egokituz.
- Argi eta tinko jokatzeko, haurrak guztiek errespetatu beharreko arau batzuk daudela uler dezan, horrek segurtasun afektiboa eta fisikoa emango baitio.

#### **6.1.1- Hezkuntza-erantzunak.**

Azaldutako guztia dela-eta, hasiera batean familiekin harremanetan jarri beharko da, beren seme/alabari buruz eman nahi diguten informazio guztia aktiboki entzunez, eskolan eskolatzearen hasierak ekarriko duenari buruzko informazioa emanez eta irakasle-taldeak diseinatutako egokitzapen-prozesua nola burutuko den adieraziz. Gainera, beren berezitasuna dela-eta, familiaren eta ikastetxearen artean tratatu behar diren alderdiei dagokienez (haurrekin egongo den pertsona, ordutegi pertsonala, banantzearen hasiera...) adostasun bat lortu beharko da.

Gurasoek aldi honek suposatzen duenarekiko sentikor izan behar dute eta, beraz, beren funtzioa argitu eta objektiboki duten protagonismoa eman behar zaie.

Era berean, garrantzitsua da haurrek aldi honetan dituzten premiak klaustroan eztabaidatzeko eta irakasle batzuei edo guztiei dagozkien ekintzak elkarrekin planifikatzeko nahikoa denbora hartzea.

**Ahal den neurrian, egokitzeko aldia pixkanakakoa, mailakatua eta lasaia izatea komeni da.**

Segurtasuna eskaini behar da; horretarako, besteak beste,

- 1- Garrantzitsua da bere zain egotea eta berak hala ikusi eta sentitzea.
- 2- Bere familiaren eta tutorearen arteko harremana ezagutu eta sentitzea.

- 3- Ikastetxea antolatuta eta gela ordenatuta egotea.
- 4- Espazioak bertan dagoena eta bere aukerak argi adieraztea.
- 5- Objektu gutxi eta ondo banatuta egotea, hartzea eta gordetzea erraza izan dadin.
- 6- Bere gauzak gordetzeko toki bat eskaintzea.
- 7- Bigarren helduaren presentziak gelan tutorearen etengabeko presentzia ziurtatuko du.
- 8- Prozesuan izandako atzerapenen errua ez botatzea eta, beldurra, segurtasun-eza edo arbuioa adierazten dutenean, errudun ez sentiaraztea.

## Argazki 19

### **6.2- ESFINTERREN KONTROLA.**

Esfinterren kontrola bizitzako esperientzia garrantzitsu bat da haurrentzat, baina hau behar bezala garatzen laguntzeko irakasleek eboluzio-prozesu normal bat bezala bizi behar dute, alegia alferrikako estuasun-zamarik edo blokeorik gabeko prozesu bat bezala.

Esfinterrak kontrolatzeko eskola-tratamendua ez da sekula burutu behar egokitzeko aldia amaitu baino lehen. Ildo honetan, eboluzio egoki baten sintoma da haurrak eskola-orduetan komuna edo txizontzia erabiltzea.

Hau ikasten hasi ahal izateko alde zuzenetik libratzeetan aldizkakotasuna dagoela ziurtatu behar da.

Beste ikaskuntza askorekin gertatzen den bezala, ez da komeni tematiegia izatea. Garrantzitsua da ordutegi bat jarraitzea, komunean edo txizontzian denbora luzez eserita egoten ez uztea, libratzen ez dutelako errurik ez botatzea eta, ahal izanez gero, taldean daudela txizontzian esertzea.

## Argazki 20

Ikaskuntza hau pertsonalizatzeko kolore desberdinetako txizontziak izatea eta haur bakoitzak berea izatea komeni da.

Haurra aldian-aldian txizontzian libratzen denean, haur-oihala kentzen has daiteke.

Haurrak txizontzian edo komunean libratzen direnean, neurri handi batean helduak eta ikaskideak imitatuz egiten dute, jarrerren, baloreen eta arauen garapenarekin lotutako guztia bezala. Horregatik, irakasleek horren aurrean erakusten dituzten jokabideek eta jarrerrek, neurri batean, bizi-aztura horiek bizitzeko modua baldintzatzen dute. Irakasleen eta familien arteko koordinazio egokiak ikaskuntza hau ondo garatzea ahalbidetuko du.

Bere premiei (higieneari dagozkionak) erantzuteak haurrari dagokionez aztura batzuk bereganatzea inplikatzeko du eta irakaslearen aldetik esfinterrak kontrolatzeko gaitasun-eza errespetatzea eskatzen du. Irakasleak eboluzio-gai gisa eta, haurraren heltze-erritmora egokituz, maila honetan lortu beharreko hezkuntza-helburu gisa hartu behar du.

Ipuinen ordua edo lan psikomotrizia bezalaxe, haur-oihalak aldatzea, jatea, lo egitea eta abar esanahiez betetako iharduera garrantzitsuak dira; eta hauetan ere haurraren izaera osoa funtzionatzen hasten da, ikaskuntza konstruktiboak sustatuz eta ahalbidetuz.

Beste batzuen artean, ondokoek adierazten dute haurra bere esfinterrak kontrolatzen ari dela:

- Haur-oihalak jarrita izan arren, txiza edo kaka egiteko makurtzea.



- Oihalean txiza edo kaka egin ondoren “txiza” edo “kaka” esatea.
- Eskua oihalean jartzea.
- Libratzen ari denean harridura-keinuak eta -soinuak egitea.

### **ORIENTABIDE PRAKTIKOAK**

- Bainulegako giroak erlaxatua eta alaia izan behar du.
- Erabili eta botatzeko oihalak erabili behar dira.
- Haurrak beti zona berean aldatzea gomendatzen da.
- Haurrak buztita dauden ikusteko denbora batzuk markatzea eta zaintzea komenigarria izan daiteke: lotara joan aurretik, siestaren ondoren...
- Erabili eta botatzeko eskularruak erabiltzea.
- Gelaren eta bainugelaren artean aterik balego, beti erdi irekita uztea.
- Komuneko papera beti haurren eskura egon dadin ziurtatzea.
- Komunikatzen irten berriak izan arren, bertara itzultzeko aukera ematea.
- Arau batzuk betearaztea: komuneko ponpa botatzea, eskuak garbitzea...
- Haurrak arropa janzteko eta erantzeko zereginetan laguntzera bultzatzea.
- Haurra une zehatzetan komunera edo txizontzira eramatea: goizean, bazkaldu ondoren...
- Komunera joan nahi ez duena horretara ez behartzea.

Argazki 21

## **7- IRAKATSI ETA IKASTEKO GIROAREN ANTOLAMENDUA.**

Ikaskuntza eta garapen pertsonala dira irakaskuntza-ekintza gidatuko duten eragile nagusiak, eta ikastetxearen eta gelaren antolamendua hauen araberakoa izango da. Haur-eskolak prosatutako helburuak lortzeko, espazioa, denbora, materialak eta iharduera behar bezala planifikatu behar dira. Baina espazioaren edo denboraren banaketa hutsak, esanahi osoa izan arren, ez ditu proposatu diren helburuak betetzen, irakasleen iharduera behar bezala hausnartu ez bada, behar bezain intentzionala ez bada eta afekturik, enpatiarik eta oinarri profesionalik ez badu.

Argazki 22

### **7.1- ESPAZIOEN ETA MATERIALEN ANTOLAMENDUA.**

Haurrari esleitutako espazioa eta materialak antolatzea arau finkorik onartzen ez duen zeregin kreatibo eta etengabea da. Halere, giro orok jarrerak eta baloreak baldintzatzen edo estimulatzen dituela kontuan izanik, irizpide batzuk ezartzea baliagarria izan dakieke lan-taldeei gogoeta egiteko eta egiaztatzeko.

**Espazioa honako hauek lortzera bideratutako helburuak betetzeko antolatu behar da:**

- Autonomia fisikoa, intelektuala eta morala garatzea eta nortasuna taxutzea.
- Bizitzako gertakarien eta fenomenoek behaketa, interpretazioa eta ulermena garatzea.
- Hizkuntza desberdinetan komunikazio-gaitasuna modu sortzailean garatzea, pixkanaka gizarte-kodeak sartuz.
- Bizitzeko eta ikasteko pertsonarteko harremanak ezartzeko gaitasuna garatzea.

**Horretarako, espazioak ondokoak bete behar ditu:**

- 1- Zer egiten den, zergatik egiten den eta zertarako egiten den argi eta garbi erakustea.
- 2- Dinamikoa, malgua eta aldakorra izatea.
- 3- Ikasleei segurtasuna eta konfiantza ematea.
- 4- Ikasleentzat esanguratsua izatea.
- 5- Estetika ikaskuntza errazten duen elementu gisa zaintzea, honek afektua, begikotasuna eta bizitasuna eman ditzan saiatuz.
- 6- Ikaskuntza autonomoa bultzatzea, autonomia pertsonala eta zereginen norberaren antolamendua lortzera bideratutako aztura jakin batzuk sustatuz.
- 7- Gelan elkarreragina ahalbidetzea, bai irakaslearen eta ikaslearen artean, bai eta ikasleen euren artean ere.
- 8- Ikaskuntza-zona desberdinetatik haur hauen premiei erantzutea.

Argazki 23

Honako hauek bereiziko ditugu:

**ESPAZIO KOMUNAK**

- Ikastetxeko sarrera.
- Jolastokia. Kanpoko jolas-espazioa.
- Sukaldea.
- Jantokia.
- Psikomotrizitate-aretoa.

**GELAKO ESPAZIOAK**

- Jolas- eta iharduera-zona
- Higiene- eta ur-zona
- Atsedeen-zona

**7.1.1- Espazio komunak.**

### **Ikastetxeko sarrera:**

Adin hauetako haurrak eta ikasle zaharrenak ate desberdinetatik sartzea komeni da. Hau ezinezkoa bada, ordutegi desberdinak ezartzeko ahaleginak egingo dira, haur txikiak pilaketarik gabe sar daitezten.

Espazio hau etxea eskolarekin lotzen duten objektuez hornituta egotea komeni da. Besteak beste, ondokoak bilduko ditu:

- Haurrentzat ezagunak eta hurbilak diren objektuak.
- Landareak.
- Haur-marrazkiak.
- Kortxozko taula, bertan eguneko menua, familiari zuzendutako informazioa, ohar garrantzitsuak eta abar jartzeko.
- Tamaina handiko beste kortxozko taula bat, bertan haurren marrazkien eta lanen erakusketak egiteko.
- Objektu pertsonalak gordetzeko espazioak: berokiak, poltsak...

Argazki 24

### **Jolastokia:**

Jolas-orduak ere oso garrantzitsuak dira hezkuntzaren ikuspegitik.

Espazio hau jolastoki gisa aurkeztu behar zaie haurrei eta, zentzu honetan, eskaintzen dituen aukerak erakutsi behar zaizkie.

Jolastokia lehen hezkuntzako mailek erabiltzen duten orduetan erabiltzen bada, sor daitezkeen arazoak saihestuko dira batzuen eta besteen irteerak modu planifikatuan antolatzen baituz. Honek ez du esan nahi kasu guztietan jolastokira irteteko ordua bereizi behar denik; aitzitik, interesgarria litzateke espazioak elkarbanatzen, elkarri errespetatzen, azken batean adin bakoitzaren erritmoa eta interesak errespetatuz elkarrekin egoten irakastea.

Horretarako aukera dagoenean, interesgarria litzateke **kanpoko jolas-espazio bat** izatea. Ahal den guztietan, espazio honek ondokoak izan ditzake:

- Zona estalia: haurrak eguraldi txarretik babesteko. Era berean baliagarria izan daiteke, narriatzeko arrisku handiagoa duten materialak dituztela-eta, jolas jakin batzuk bertan jartzeko.
- Baratza eta abeletxea: landare eta animaliekin, haurrak hauek zaintzen eta errespetatzen ikas dezan.
- Hondar- eta ur-zona: interesgarria litzateke hondar-zona estalia egotea zikindu ez dadin. Zona honetarako jolas-elementuak: pika, pala, pertza, inbutuak, eltzeak...
- Egitura fincoen zona: zabuak, txirristak, tunelak (zementuzkoak edo pneumatikozkoak), zubi mugikorrek edo beste oreka-jolas batzuk, igotzeko sokak, zirkuitoak eta labirintoak...
- Jolas mugikorren zona: lasterketen eta joan-etorrien jolasak. Zoruko materialak laua eta iraunkorra izan beharko du: trizikloak, patineteak, eskorgak, auto txikiak, pneumatikoak (birarazteko), pilotak, aroak, labirintoak (bertan barrena ibiltzeko)...
- Jolas sinbolikoen zona: txabolak, etxeak, ezkutatzeko txokoak, untziak, zurezko animaliak (gainean igotzeko), trenak...

## Argazki 25

**Sukaldea** haurrentzat elementu aberasgarri bat izan daiteke; bertan,

- Ondoren jango dituen elikagaiak nola aldatzen diren ikus dezake.
- Elikagaien bat prestatzeko aukera izan dezake...

**Jantokirik** badago, bertako giroak atsegina eta goxoa izan behar du. Une hauek hezkuntza-mailan duten balioa kontuan hartuz, gomendagarria litzateke tutorearen presentzia espazio honetan, haurrak elikadura-aztura sano eta orekatuak, garbiketa-azturak, ordena-azturak eta abar bereganatzea ahalbidetzeko.

Lokal honetan zaratak eta masifikazioak saihestuko ditugu. Jantokian lehen hezkuntzako beste haur batzuekin egon behar badute, manparen edo bionboen bitartez espazio txikiago eta goxoago bat sortzen saiatuko gara.

Garrantzi berezia du **psikomotrizitate-aretoak**. Normalean Etapako maila desberdin guztiek erabiliko dute. Gelatik hurbil dagoen eta sarbide erraza duen zona batean kokatuta egotea litzateke egokiena.

Toki ezin hobe da haurrak bera bezalakoekin harremanak izateko, bere gorputz-hizkuntza askatasunez garatzeko, bere barne-mundua adierazteko, bere pentsamendua egituratzeko eta bere ekintzen ondorioak behatu eta barneratzeko.

Normalean espazio honek hezkuntza-asmo bereziak eta espezifikoak ditu, betiere pertsona heldua lan-saioak asmo, orientabide eta antolamendu argiekin garatzeko prest badago; baina, dena dela, areto honek jolas-espazio gisa duen balioa ukaezina da. Honela bana daiteke:

- Mugimendurako zona edo zentzumen- eta mugimen-jolasetarako zona.
- Jolas sinbolikoetarako zona.
- Eraikuntzetarako eta irudikapenetarako zona.
- Atsedeen hartzeko edo bakarrik egoteko zona.

## Argazki 26

Adin hauetako haurrek gorputz-lanean oinarrirituz garatzen dute Etaparen helburu nagusia, hau da, norberari buruzko iritziaren egituraketa. Tonu indibiduala berrantolatzeke, ondoko ekintzak burutuko dira eta hauei espazio eta material jakin batzuk esleituko zaizkie.

- 1- Biraketak.
- 2- Erorketak.
- 3- Labainketak.
- 4- Plazerra eragiten duten jarrerak.
- 5- Oreka-jolasak.
- 6- Altuera-jolasak.
- 7- Jauziak (erorketa).
- 8- Bertikaltasuna.
- 9- Ibiltzeko, korrika egiteko... jolasak.
- 10- Bultzatzeko jolasak.
- 11- Kulunkak.

12- Zapalketak.

13- Igurtziak, masajeak.

Era honetako ekintzak hezkuntzaren plangintzaren barruan era honetako ekintzak egiten ez badira, besteen “aurka” egingo dituzte; horregatik dira hain garrantzitsuak adin honetan garrantzitsuak borrokak, bultzadak, erorketak...

Gelak zabala, erakargarria, argitsua eta behar bezala babestua (intsonorizatua, kortxozko hormak eta zorua dituena) izan beharko luke, bertan haurra seguru eta babestua senti dadin.

### **7.1.2- Gelako espazioak.**

Espazio honen banaketak oro har espazioarentzat adierazi diren baldintzak bete beharko ditu, baina hurrek hemen igaroko dute denbora gehiena eta, beraz, hau izango da beren erreferentziazko tokia.

Helduak hezkuntza-asmo argi batzuekin banatuko du gela-espazioa, ikasturteko une jakin batean taldean antzemandako premiei erantzuteko. Horregatik, banaketa honek ezin du estatikoa izan; aldatu egin beharko da aipatutako aldagaiak aldatzen direnean, espazio horiek haurrentzat esanahia izan dezaten, segurtasuna eskaini diezaieten eta haurren ekintza-autonomia garatzea ahalbidetu dezaten.

Kontuan izan behar dugu talde handiarentzako, talde txikiarentzako eta lan eta atsedeen indibidualerako espazioak eskaini behar ditugula.

Argazki 27

Gelan zirkulazio-bide argiak ezarri behar dira eta espazio libre zabal bat izaten saiatu behar dugu. Izan ere, haurrak handitzen joan ahala, gelaren zonifikazioa handiagoa izan daiteke, baina 2 urte dituztenean, horrez gain espazio txiki egituratuak, joan-etorri zabalak ahalbidetuko dituzten espazio argiak behar dituzte.

Zona desberdinek elkarri lotuta egon behar dute eta, gardenkien bitartez, agerian egon behar dute, betiere haur-taldea kontrolatu ahal izateko.

Iharduera lasaiak egiteko zonak eta mugimendu gehiago eskatzen duten iharduerak egitekoak bereizi eta banantzeko premia kontuan izan behar da.

Haurrak bakarrik egon ahal izateko zonak eta besteekin harremanetan jarri ahal izateko zonak mugatu behar dira.

Hurrek egunaren barruan burutzen dituzten iharduera guztiak hezkuntza-helburu batzuk lortzeko planifikatuta daude. Horregatik, beste edozein banaketa baino areago (bazterrak, tailerrak, txokoak...), beharrezkoa da diseinatutako espazio bakoitzak hezkuntza-premia batzuei erantzutea, horregatik hartzen ditugu IKASKUNTZA-ZONAtzat.

Ikaskuntza-espazioen kopurua eta gelan duten banaketa irizpide malguekin, gelaren eta ikastetxearen ahalbideen arabera, gure ustez helburu nagusiak direnen arabera, haurren premia espezifikoen arabera eta beren interesen arabera erabaki behar diren arren, inoiz ezin dugu ahaztu haur-ikaskuntzaren globalitate-zentzua. Alderdi honek markatuko ditu irakasleek premia horien aurrean bete behar duten funtzioa eta hauei eman behar zaizkien erantzun profesionalak, bai eta espazio batzuk edo besteak antolatze beharra ere.

#### **IKASKUNTZA-ZONEN EZAUGARRIAK**

Ikaskuntza-zona bakoitzak helburu jakin batzuk lortzen laguntzeko sortuta eta antolatuta egon behar du.

Zona bakoitzaren helburuek beste helburu orokorrago eta zabalago batzuk lortzen lagundu behar dute.

Zona bakoitzari esleitutako materialak proposatutako helburuen arabera aukeratu eta antolatuko dira.

Orientabide gisa, banaketa posible bat proposatuko dugu horren arabera erabiliko diren gelarentzat eta materialentzat.



## **JOLAS- ETA IHARDUERA-ZONA.**

### **Alfonbra-zona.**

Talde-lanari edo talde-iharduerei zuzendua.

Zona honetako materialak ondokoak izan daitezke: argazkiak, liburuak, ispilua...

Argazki 28

### **Jolas sinbolikoen zona.**

- Zona honetako materialak ondokoak izan daitezke:
- Etxea, panpinak, sehaskak, jantziak, bainuontzia...
  - Mozorroak eta makilajea.
  - Garajea eta autoak.
  - Eraikuntzak.

Argazki 29

## Argazki 30

### **Mugimendurako eta joan-etorrietarako zona.**

Espazio honek zabala izan behar du, haurrak askatasunez mugitzeko aukera izan dezan. Materialak ondokoak izan daitezke:

- Arraste-jolasak, bizikletak...
- Txirristak, arrapalak.....

### **Manipulaziorako eta azterketarako zona.**

Zona honetako materialak ondokoak izan daitezke:

- Hondarra.
- Pintura.
- Buztina.
- Plastilina.
- Objektu anitzak.
- Hondakin-materialak.

Argazki 31

**Musikarako zona.** Gelan entzumen-diskriminazioa eta erritmoa lantzeko behar den materiala:

- Enbolo-xirula
- Tutu melodikoa.
- Sirenak.
- 7 kanpaiko sorta.
- Zintak.
- Aroak.
- Pelotak.
- Ehiza-apeuak.

Perkusio txikia:

- 30 bider 10eko kaxa.
- Kaxa txinarra eta klabezinak.
- Txintxinak.
- Kriskitinak.
- Kastainetak.
- Marakak.
- Txindatak.
- Sonailuak.
- Krotaloak.
- Kirten-kastainetak.
- Arraska.
- Txindantak.

Gainera, gela goi-fidelitateko soinu-ekipo batez hornitzea komeniko litzateke; honek disko trinkoen irakurgailu bat eta bi pletina izan beharko ditu. Disko-biratzaila ez da behar-berrazkoa. Garrantzitsua da mikrofono bat eta grabagailu eramangarri bat izatea.

**Behaketarako eta naturako zona.**

Materialak:

- Landareak.
- Animaliak.
- Hurrek ekar dezaketen edo ikastetxean aurki daitekeen eta behaketak eta eraldaketak egiteko baliagarria den edozein objektu.

## **HIGIENEAREN ETA UR-JOLASEN ZONA.**

Zona honen helburua higie pertsonaleko azturak sustatzea izan behar du eta gainera, haurrei gehien gustatzen zaizkien ihardueretako bat burutzeko aukera eman behar die: urarekin jolastea.

Materialak ondokoak izan daitezke:

- Aldaketa-mahaia: garrantzitsua da helduarentzat erosoia izatea eta, haur bat garbitu bitartean besteei behatzeko, ondo kokatuta egotea.
- Apalak, esekitzeko gakoak, otarrak, poltsak eta abar. Arropa, oihalak, aldagarriak, eskuoihal indibidualak, basoak, hortz-eskuilak eta abar biltzeko baliagarriak izango dira.
- Haurren altuerari dagozkion komunak (0,60 bat zm. lurretik hasita).
- Haurren altuerari dagozkion konketak (gutxi gorabehera 0,40 zm.tik 0,60 zm.ra lurretik hasita).
- Haurren altuerako harraska luze bat, ur-jolasetarako. Garrantzitsua da uraren tenperatura egokitzea. Zona honetako zorua labainkadakontrakoa eta erraz garbitzekoa izango da.

Argazki 32

## **ATSEDEN-ZONA.**

Garrantzitsua da zona hau lasaia izatea eta ondo aireztatuta egotea. Gela independente batean kokatuta badago, gelatik sarbide zuzena izan behar du. Kasu honetan, interesgarria litzateke horma gardena izatea, horrela, atsedeen hartzen ari diren haurrak betiere ikusi ahal izateko. Bestalde, gelako zona bat ere egokitu daiteke atsedeen-zona gisa; kasu honetan, erraz garraia daitezkeen koltxonetak edo hamakak erabiliko dira.

Gelako materialen aukeraketari dagokionez, material solidoak, seguruak eta iraunkorrak aukeratu behar dira. Gainera, espazio bakoitzari esleitutako materialek azturak bereganatzea, espazioaren eta denboraren antolamendua, adimen-egituraketa, sinbologia, abstrakzioa eta abar ahalbidetu behar dituzte.

### **Materialek ondokoak bete behar dituzte:**

- Antzemandako premiei erantzutea.
- Proposatutako hezkuntza-proiektuari erantzutea, laguntzea eta osatzea.
- Ikaskuntza-espazio desberdinen hezkuntza-asmoa osatzea.
- Ordenatuta eta haurren eskura egotea.
- Solidoak, seguruak, iraunkorrak eta maneiagarriak izatea.

Adin honetan materialen erabilera lotuago dago beren ahalbideen azterketarekin irudikapen-premiarekin baino. Horregatik, hezitzailearen jarrerak ez du egon behar produkzioak lortzera bakarrik zuzenduta; aitzitik, beste funtzio batzuk ere baditu: aztertzen, esperimendatzen eta behatzen uztea, bere presentziarekin lagunduz eta animatuz eta haurrari ikasten eta sortzen jarraitzea ahalbidetuko dioten materialak lortuz

## **7.2- DENBOREN ANTOLAMENDUA.**

### **Denbora-banaketak ondoko ezaugarriak izan behar ditu:**

- Orekatu eta dibertsifikatua izatea, arreta indibidualerako eta arreta kolektiborako denbora desberdinak egon daitezzen.
- Lan-, arreta- eta atsedeen-erritmo desberdinak errespetatzea.
- Malgua eta, aldi berean, argia eta egonkorra, segurtasuna eman dezan eta espazioaren eta denboraren barneratze-prozesuan lagundu dezan.
- Intenzionala eta planifikatua, gertatzen dena aurreikusia izan dadin, helduen edo haurren proposamenetan oinarritutako aldaketak sartzeko aukera egon arren.

### **7.2.1- Ikastetxeko ordutegia.**

Lehen zikloko haurren ezaugarriekiko serioa eta adeitsua den planteamendu batek gutxienez bi arazo planteatzera behartzen gaitu: haurren premiak eta familien premiak.

Haurren premiei dagokienez eta, Euskadiko Eskola-Kontseiluaren “Haur Hezkuntza EAEn” (1993) delako azterlana aipatuz: *Haur Hezkuntzan denbora-banaketa aukeratzeko garaian planteatu behar den lehenengo gauza da haurren erritmo inibidualak errespetatu behar direla; gero eta adin txikiagoa izan, orduan eta erritmo anitzagoak aurkituko ditugu. Haur txikiengan denbora eta beren erritmo biologikoak oso loturik daude: iharduera fisikoan*

*premia, atseden-ihardueren premia, objektuekin esperientzia zuzenak izateko premia, erlaxazio-ihardueren premia eta abar. Era berean, garrantzitsua da haurrei taldean igarotzeko uneak eskaintzea, bakarka igarotzeko uneekin txandakatuz.*

Familien premiak kontuan hartzen baditugu, azterlan honetan bertan ikusten dugunez, gurasoen erdiak baino gehiagok nahiago zuten ordutegi luze bat, agian, lan-ihardunaren exijentziei hobeto egokitzen zaielako.

Beraz, ezin da defendatu Haur Hezkuntzako haurrek, eta are gutxiago lehen ziklokoek, derrigorrezko irakaskuntzarako diseinatutako ordutegi zorrotza betetzea.

Dena dela, **Haur Hezkuntzako irakasleek beren zereginak antolatzean haurren eskariak kontuan hartzen dituztela** ulertu behar da.

Txikienei ordutegi egoki bat eskaini ahal izateko, honako hauek kontuan hartu behar dira:

- **Harrera-denbora.** Ikastetxe batzuetan lehen zikloko irakasleak edo 2 urtekoen gela desberdinetako irakasleak espazio berean daude (harrera-gela bat, jolas erakargarriak eta abar izango dituen korridore zabal bat...) goizeko lehen ordu erdian, gela desberdinetan sartzeko unea iristen den arte.
- **Sarrera-denbora.** Garrantzitsua da haurrak eskolara inolako tentsiorik gabe joatea. Batzuetan, janzteko orduan, gosaltzeako orduan eta abar zenbait arazo sortzen dira eta hauek ezin dira behar bezala ebatzi, eskolan sartzeko ordutegi zorrotz bat badago. Alde batetik, sarrerak antolatu behar dira korridoreetan handienek txikiak zapaldu ez ditzaten eta, bestalde, 30 minutuko tarte bat ezarri daiteke gelan sartzeko; ikasturtea aurrera joan ahala berez normalizatuko da.

Argazki 33

- **Irteera-unea.** Agurtzeko unea elkartzekoa bezain garrantzitsua da. Talde-agurrak, -keinuak eta -konplizitateak indibidualak bezainbeste zaindu behar dira. Ikastetxe batzuetan ez da zaila haurren bila datorren pertsona helduak irten aurretik oinetakoak aldatzea, berokia janzte eta abar. Horrela egunero denbora bat aurreikusita egongo da familiekiko harreman



informalarentzat. Haur txikiek eta handiek korridore berberak erabili behar badituzte, batzuk eta besteak ez dira ordu berean irtengo.

- **Hezkuntza-langileen ordutegi-antolamendua.** Adin hauetan hezitzaileen ordutegiak eta haurrenak ez dute beti bat etorri behar. Irakasleen antolamendua egokia bada, haurrek pertsona heldu desberdinekin ezarri ditzakete erreferentzia afektiboak, eta eguneko une desberdin guztietan pertsona horietako bat ondoan izango dute. Ikastetxe batzuetan irakasleek txandak egiten dituzte eta, arratsaldeko saioaz gain, jatorduaz eta siesta-orduaz ere arduratzen dira.
- **Egutegia.** Nolabaiteko malgultasunez joka daiteke haurra eskolan hasteko unean. Familia batzuek eskertu egiten dute beren seme-alabak eskolan hastean beren iritzia kontuan hartzea. Ikasturtearen hasieran haur bakoitza ikasturtearen zein unetan eskolaratuko den zehatz daiteke eta, datu honen arabera, eskura dauden baliabideak antola daitezke.

### 7.2.2- Bi urtekoen gelako ordutegia.

Ikastexeko antolamendu argi eta malgua sustatzeaz gain, gelaren barruan denbora-antolamendu egoki bat egin behar dugu.

Ordutegia, espazioak bezala, aldatu egingo da taldearen, ikasturte-unearen eta abarren ezaugarrien arabera. Beraz, dokumentu honetan ez dugu proposamen zorrotz bat egin nahi, aitzitik, bi urteko haurren eskola-ihardunean kontuan hartu behar diren eta irakasle bakoitzak bere errealitate zehatzari egokituko dizkion une garrantzitsuak aipatzea da gure asmoa.

- **Harrera edo sarrera-unea.** Lehenago ere aipatu dugu modu desberdinetan burutu daitekeela, baina agur indibidualetarako une hau behar-beharrezkoa da. Hezitzaileak keinu bat, begi-keinu bat, esaldi pertsonal bat eta abar izango du haur bakoitzarekin.
- **Guztiak elkartzeko unea.** Kasu batzuetan haurrak biribilean eser daitezke sarrera-unearen eta hasierako jolasaren ondoren. Une hori aprobeztatuko dugu talde-agurrak egiteko, atzo agurtzeko erabili genuen kanta kantatzeko, nor falta den ikusteko, elkarbanatzeko jostailurik ekarri duten ikusteko eta abar. Talde batzuek espazio desberdinetan jolasteko denbora luzea behar dute taldean bildu aurretik.
- **Jolas-unea.** Txokoetan edo haurrentzat sarbide librea izango duten espazio desberdinetan banatutako antolamendu batean oinarrituz, gela desberdinen arteko zirkulazio librea izanda edo izan gabe, garrantzitsuena da bat-bateko jolaserako eta jolas lasairako denbora egotea, hau da, materialez gozatzeko eta harremanak sortzeko nahikoa izango den denbora izatea.
- **Jasotzeko eta gaileta bat jateko unea.** Gela jasotzeak, gauzak berriz beren tokian jartzeak, lasaitu egiten gaitu eta horien bila itzultzen garenean hor egongo direla ziurtatzen digu. Bi urteko haurrekin pertsona helduak sustatzen eta errazten du materialak jasotzea. Atsegina izaten da, gela ordenatuta dagoela, zeregin zehatz baten inguruan taldean biltzea: esate baterako, gaileta bat edo fruta-zati bat jateko, ipuin bat kontatzeko edo kanta bat kantatzeko.

- **Kanpoan jolasteko unea.** Ahal denean kanpoko instalazioak erabili behar dira. Kanean, mugitzeko aukerak, gure ahotsaren soinua, tenperatura eta abar aldatu egiten dira eta haurrak jolas-egoera berrietan parte hartzera animatzen dituzte. Pertsona helduaren presentzia funtsezkoa da espazio hauek zabalegiak badira, hurrengan segurtasun-eza eragiten baitute. Jolastokiak ezin dira ikasturtearen hasieratik erabili eta bertan beste adinetako hurrekin ez elkartzeari ziurtatu behar da, txikieneen jolasa erlaxatua izan dadin.
- **Higiene-azturetarako unek.** Egunaren barruan zenbait une aurreikusi beharko ditugu txizontzia edo konketa erabiltzeko. Irakasleek kontuan hartu behar dute haur bakoitzaren erritmoa, honek esfinterrak behar bezala kontrolatu arte; eta abagune desberdinak ahalbidetu behar dituzte premia biologikoen adierazpen eta erantzunerako. Gainera, konketa erabiliko da kaletik sartzean eta jatorduen aurretik eskuak garbitzeko.

#### Argazki 34

- **Jateko eta lo egiteko unek.** Eskolak erabaki behar du ikasle txikienei zerbitzu hauek eskaintzeko baldintza egokiak betetzen dituen ala ez. Hala bada, une hauek etapako curriculumaren barnean planifika daitezke, horietaz arduratuko diren langileen presentzia eta zereginak antolatuz.
- **Zuzendutako ihardueretarako unek.** Tutoreak talde osoari edo haur batzuei bakarrik proposatuko dizkien iharduerak planifika ditzake. Haurren ekimenak jasotzeaz gain, hezitzaileak haurraren eta ikaskuntzaren garapena aberastuko duten jolas-proposamenak egin ditzake.
- **Ikastetxeko beste espazio batzuetara joateko unek.** Haur txikienek gimnasioak, ikus-entzunezkoen gelak eta abar bezalako espazio komunak nola erabiliko dituzten antolatu eta koordinatu behar da. Astearen barruan zenbait denbora planifika daitezke espazio hauetara joateko.
- **Agurtzeko unea.** Planifikatuta egon behar du erlaxatua izan dadin, tentsiorik edo presarik gabe. Gela jaso, garbitu, jantzi edo materialen bat banatu behar bada, horretarako nahikoa

denbora gordeko da. Interesgarria litzateke une horretan kantez eta dantzez baliatzea, hauek talde-bizitza aberats, berezi eta alaia sortzen laguntzen baitute.

Bereziki esanguratsuak diren bi une azpimarratuko ditugu: **jatorduak eta loa**

#### 7.2.2.1- Jatorduak.

Elikadurak, nutrizioaz gain beste alderdi asko inplikatzeko ditu: autonomoki elikatu ahal izateko nolabaiteko mugimen-garapena behar du, zentzumenen mundu osoa ezagutarazten du eta, gainera, alderdi afektiboak, sozialak eta pertsonarteko harremanei dagozkienak ere, alegia hezitzailearekiko nahiz beste hurrekiko harremanei dagozkienak ere, inplikatzeko ditu.

### Argazki 35

Haur-eskolan jatorduak antolatzeko orduan, besteak beste, ondoko alderdiak kontuan hartu behar dira:

- Jantokiaren egokitzapena. Aukeratutako zonak lasaia izan behar du, haurrak lasai ibiltzeko nahikoa toki izan behar du; komenigarria litzateke haur bakoitzak berari esleitutako espazio bat izatea. Mahai bakoitzean haur gutxi egongo dira, plater batetik bestera igarotzen den denborak ez du luzeegia izan behar eta, oro har, alderdi higienikoez gain, estetikoak ere zaindu behar dira.
- Erritmo, kantitate eta gustu desberdinak errespetatu behar dira, elikadura-aztura osasungarriak ahaztu gabe.
- Menuen prestaketa eta familiei eman behar zaien hauei buruzko informazioa, bai eta haur bakoitzak jaten duenari buruzko informazioa ere, oso gai garrantzitsuak dira eta xehetasun handiagoz aipatuko ditugu familiaren eta eskolaren arteko harremanei dagokien atalean.
- Haurrek jatorduen aurretik eta ondoren egin ditzaketen errituen planifikazioa:

- Aurretik:** - eskuak garbitu  
- lerre-zapiak jantzi  
- mahaia jartzen lagundu...
- Ondoren:** - mahaia jasotzen lagundu  
- hortzak garbitu (2 urtetik gora)...

### 7.2.2.2- Loa eta atsedena

Haurrak helduak baino azkarrago suspertzen dira nekatuta daudenean, baina era berean lehenago nekatzen dira; beraz, iharduera-atsedeneko zikloak laburragoak dira eta, atsedena edota loa ahitutako kemena berreskuratzen nahiz heltzen eta garatzen laguntzen dutenez, gai hau kontuan hartu behar da haur-eskolako iharduerak planifikatzeko orduan.

Printzipioz, ordutegi komun batzuk ezarri daitezke, baina malgutasunez. Behar-beharrezkoa da bakoitzaren premiei, bakoitzaren lokartzeko erritmoari eta esnatzeko erritmoari egokitzea.

Espazioaren egokitzapenari dagokionez, helburu honetarako bakarrik gelatik banandutako espazio bat izatea komeniko litzateke; espazio lasai bat, zarata gabea, aireztatua, ilundu daitekeena eta koltxonetez edo hamakez eta tapaki indibidualez hornitua. Lo egin aurretik haurrak oinetakoak kentzea eta arropa kentzea komeni da.

Lo hartzeko ziurraski txupetea edo kulunkatzea, tapakia edo hilea igurtzitzea eta abar beharko dituzte. Hezitzaileak ere iharduera batzuk antola ditzake (kantak, ipuinak, musika...) loak behar duen alde aurreko erlaxazio-hori lortzen laguntzeko estrategia gisa: Era berean, siesta-orduan heldua bertan egotea komeni da segurtasuna emateko.

Argazki 36

### 7.2.2.3- Eguneroko iharduerak.

Eskola-ordutegian finkoak diren iharduerei, hau da, agurren, jatorduen, garbiketaren, loaren eta abarren inguruko iharduerei, normalean ohiturak deitzen zaie. Dokumentu honetan “eguneroko iharduerak” izena erabiltzea erabaki dugu, beste arrazoï batzuen artean, gure Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Curriculum-Diseinuak izen hori eman dielako.

## Argazki 37

Eguneroko iharduerei dagokienez, irakasle bakoitzak baliabide desberdinak bildu ditzake, bere gelako bizitza alaiagoa eta originalagoa izan dadin. Baliabide hauen artean aipa ditzakegu:

- Ateak eta hormak apaintzen dituzten maskotak; talde bakoitzak bereak izango ditu. Hezitzaile batzuek txotxongilo bat erabiltzen dute agurtzeko egoerak animatzeko, iharduera-aldaketak gogorarazteko eta abar.
- Gauzak jasotzeko, bainugelara joateko, etxera joateko eta abarrerako beti errepikatzen dugun kanta.
- Espazio desberdinen sinbolizazioa. Korridoreak atseginagoak egiten dituzten marrazkiak eta jantokia, bainugela eta jolas-zona desberdinak eta abar adierazten dituzten karteekin batera agertzen direnak.
- Iharduera bakoitzari hasiera ematean tutoreak errepikatzen dituen esaldi ezagunak. Material berrien aurkezpena, edo atzo egindakoaren oroigarria.
- Jolas-saio bakoitzean ematen diren urratsak, hasierako erritoak, jolasa erraztuko duten arauen ezarpena, denbora amaitzen dela adierazten duen abisua eta materialak jasotzeko proposamen argia.
- Objektu afektiboak: lokartzea, atsedena eta ongizatea errazten duten panpinak, txupeteak edo kuxinak.

- Haur bakoitzari bakarria dela sentiarazten dioten tresna pertsonalizatuak: marrazki desberdinak dituzten katiluak, bakoitzaren motxilak, koloretako txizontziak, elkarbanatu nahi ez diren jostailuentzako edo sekretuak gordetzeko kaxoia.

Irakasleek eskola-ihardunaren dinamika arina lortzeko bultzatzen dituzten baliabide horiek guztiak.

Haurrek eguneko une bakoitzean gertatuko dena aurreikus dezakete eta beren aldaketa-proposamenak egin ditzakete. Errepikatzen diren iharduerak gero eta gehiago konplikatzen eta aberasten dira hastera edo amaitzera doazela iragartzen duten keinu eta kantekin. Azken batean, arian-arian ordutegi bat osatuko dugu eta bertan erritoeak lasaitu egingo dute eta proposamen berrien oinarria emango digute.

Errito bilakatutako ekintza hauei guztiei laguntzen dieten hitz eta testu guztiek bigarren hezkuntza bereganatzea erraztu dezakete eredu elebiduna duten taldeetan.

#### **7.2.2.4- Aldizkako iharduerak.**

Taldean ordutegi bat ezarri denean, alegia haurren erritmoei eta premiei erantzuten dien ordutegi bat ezarri denean, egunerokoak ez diren iharduerak sar daitezke bertan.

Ospakizunez, jaiez, bat-bateko bisitez, aurreikusi gabeko material erakargarri bat ekartzeaz eta abarrez ari gara.

Arrazoi asko izan daitezke era honetako aldizkako iharduerak antolatu edo inprobisatzeko. Urtebetetzeak oso aitzakia egokia izan daitezke haur bakoitzaren errealitatea hobeto ezagutzeko: beren famili argazkiak ekartzeko eskatuz, beren zaletasunez hitz egiteko esanez, gelan bere familiako norbaitekin tarte bat antolatuz eta abar. Beste batzuetan klaseko dinamika aldatu egiten da talde guztiak Olentzeroren, Ihauteriaren, Ostegun Gizenaren edo herri-egutegiko beste edozein jairen antolamenduan edo ospakizunean inplikatzen garelako.

Batzuetan, irakasleak berak erabakitzen du taldeari iharduera berri bat planteatzea: arratsalde batez buztinarekin jolastea, beste pertsona batzuen laguntzaz tenperekintza pintatzea, azokara bisitaldi planifikatu bat egitea, harriak jasotzera irtetea eta abar.

Iharduera hauek eguneroko ihardueren osagarriak dira. Proiektu bati erantzuteko programatuta egon daitezke edo taldean tupustean sortu den interes batean oinarrituz bat-batean antola daitezke.

Aldizkako iharduerak arin gara daitezen, irakasleak ez du bere plana aldatzeko eragozpenik izan behar eta haurrek gelan gertatuko den guztia taldearekiko eta beren indibidualtasunarekiko adeitsua izango den segurtasuna izan behar dute.

### 7.3- TALDEEN ANTOLAMENDUA.

Jadanik adierazi dugunez, haur-etapa bi ziklotan banatuta dago: 0tik 3 urtera bitartekoak eta 3tik 6 urtera bitartekoak. Lehen ikuskera honetan eragina izan du haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan bi urtekoen gelak sortzeak.

Maila hau (2 urte) barne hartzean jadanik ezarrita dauden zikloak alda daitezkeenez, ikastetxeak taldeak antolatzerakoan kontuan har dezake beste taldekatze-mota bat, adin bakoitzaren premien eta ezaugarrien arabera. Horrez gain, kontuan hartuko ditu irakasle-kopurua, prest dauden gelak eta abar.

#### ETAPAREN ANTOLAMENDUA.

- Eredu ofiziala: bi ziklo; 0tik 3 urtera bitarteko haurrak eta 3tik 6 urtera bitartekoak.
- Beste antolamendu desberdin batzuk planteatu daitezke, haurren heltze-prozesuak ez baitu banaketa bakar bat inposatzen.
- Egin daitezkeen antolamenduak: 2tik 4 urtera bitartekoak eta 4tik 6ra bitartekoak.  
2-3-4 urteko haurrak eta 5-6-7 urtekoak.
- Ziklo bakoitzaren barruan hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten tutoreek nolabaiteko jarraipen bat izatea komeni da, oso garrantzitsua baita pertsona helduarekiko harremana eta haurrak segurtasun pertsonala bereganatzea, alegia esperientzia eta ezagutza berriak bilatzera bultzatuko duen segurtasuna bereganatzea.

Argazki 38

Zenbait saiakuntza egin dira gela batean 2 urteko eta 5 urteko haurrak elkartuz eta oso positiboki baloratu dira. Edozein banaketa baliagarria izan daiteke asmo jakin batekin, planifikatuta eta justifikazio pertsonal serio batekin egiten bada.

### 8- IRAKASLEEN FUNTZIOA.

Haurrak besteen beharra du bere burua baloratzeko; horregatik, oso garrantzitsua da helduek itzultzen dioten bere buruari buruzko iritzia. Honek ahalik eta zehatzena izan behar du eta haur-ihardueraren errealitate objektiboarekin zerikusi gutxi duten edo zerikusirik ez duten helduen gogo-aldarteek eragindako **nahigabe-adierazpenak zaindu** egin behar dira.

Adin honetan, haurra gauzak bakarrik egin nahi izaten hasten da, bere autonomia aldarrikatuz. Hemen, helduaren funtzioa **distantzia bat gordez zaintzea eta egiten uztea da** eta hau ez dago **hezkuntza-plangintza** batetik salbuetsia.

Haur bakoitzak bere lan-erritmoa du. Burutzen dituzten bereganatzeak eta hauen sakontze-maila pertsonalak dira, egoera batzuetatik besteetara ere aldatu egiten direlarik. Ikaskuntza-egoera berri bakoitzak erronka bat izan behar du haurrarentzat. Haurtako asko bat-batean sortzen dira, baina irakasleek **haur guztientzat ikaskuntza eragin dezaketen egoerak planifikatu behar dituzte**. Bakoitzaren garapen-maila desberdina denez, hauen bereganatze-erritmoak ere anitzak izango dira. Haurra burutzen ari den ihardueratik zerbait bereganatzen ari dela badirudi, ez da komeni iharduera etetea.

Adin haurtako hezkuntza-proposamenak bi alderdiren inguruan egin behar dira: alde batetik, aldatzeko eta ez aspertzeko sartu behar diren iharduerak eta, bestetik, gaitasunen arian ariko garapen planifikatua lortzeko iharduerak.

Aniztasuna errespetatuz eta onartuz egiten den haurraren erritmoarekiko egokitzapen honetan, kontuan izan behar da haurra dela, azken batean, itxaroten eta bere ekintzak luzera begira planifikatzen ikasi behar duena.

**Pertsona helduak entzuteko, onartzeko eta errespetatzeko jarrera sustatu eta izan behar du.**

Haurrei **afektua** eman behar zaie, garrantzitsuak direla sentiaraziz.

**Jarrera eta jokabide koherenteak eta egonkorrak** izan behar dira, haurrek helduen ekintzak aurreikusteko aukera izan dezaten; honek segurtasuna ematen die eta harremanen munduan kokatzen laguntzen die.

Hezitzaileek aukeratu eta bultzatu behar dituzte haurren artean harreman-dinamika positibo bat ahalbidetuko duten esperientziak, hauen parte-hartzea erraztuz eta sustatuz.

**Pertsona helduaren esku-hartzeak berdinak direnen artean harreman onak sortaraztera bideratuta egon behar du, jolaskideak bilatzen lagunduz, egiten dakitena aplikatzen irakatsiz eta ikasten jarraitzea ahalbidetuz.**

**IRAKASLEAK ONDOKOAK BETE BEHAR DITU**



- Haurrarekin lotura afektiboak sortu, den bezala onartuz.
- Lotura afektiboak sortzea ahalbidetuko duen giro bat suspertu.
- Hurrei gurasoengandik banantzen eta eskolara moldatzen lagundu.
- Bere ahalbideak eta bere mugak ezagutzen lagundu.
- Erritmo desberdinak errespetatu.
- Bere ikaskuntzan lagundu.
- Haurrarekin jolastu.
- Bera bezalakoak direnekin elkarbanatzen irakatsi.
- Egin ditzakeen iharduerak proposatu.
- Akatsak ikaskuntza-modu gisa eta ikasleen eboluzio-unearen adierazpen gisa hartu, aitzitik, inoiz ez zigorra merezi duten hutsegite gisa.
- Helduen ekintzen koherentzia zaindu, bilerak antolatuz eta haurren bizitzan zuzenean edo zeharka inplikaturako pertsona guztien artean erabakiak hartuz.

## **9- IKASTETXEAREN FUNTZIOA.**

Ikastetxean bi urtekoen gela bat sortzea erabakitzean, lehen aukera bat egiten da eta irakasle-talde osoak bere gain hartu behar du. Egin daitezkeen taldekatzei buruz gogoeta egiteko premia izango da klaustroa biltzeko beste arrazoi bat, horrela, beren funtzioan, ikastetxearen funtzioan eta tutorearen funtzioan profesionalki sakontzeko.

### **2 URTEKO HAUREN ESKOLATZEAK HONAKO HAU DAKARKIO IKASTETXEARI:**

- 2 urtekoen gelaz kontzienteki eta ondorioak kontuan hartuz jabetzea.
- Zikloko taldeak guztion artean egin beharreko ekintzak bere gain hartu eta planifikatu beharko ditu.
- Curriculum bereizlea bere gain hartzea.
- Irakasle-taldeak espazio jakin batzuen antolamendua klasutroan adostu eta zehaztu beharko du: gela, komunak, jolastokia, jantokia eta abar, hauek haurren ezaugarriei eta premiei egokitzeko.

Hori guztia lortzeko, denbora nahikoa eskani beharko zaio gai hauek eta gela hauei lotutako beste gai batzuk eztabaidatzeari.

### **TUTORETZA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

- 2 urteko gelak bere gain hartzeko orduan irizpide pedagogikoei nagusitasuna ematea.
- Etapa-espezialista eta elebiduna izatea.
- Gela hau ikastetxera lehenengoz iristen den pertsona bati ez esleitzea, berak hala nahi duela adierazi eta profesionalki justifikatzen duenean salbu.
- Garrantzitsua da maila honetaz arduratuko den pertsona motibatuta sentitzea.

### **IKASTETXEAN GELA HAUEK SORTZEKO IRIZPIDEAK**

Ikastetxean gela hauek sortzeko:

- Adinaren berezko ezaugarriak errespetatu behar dira.
- Haurrak eskolan integratzea eta eskola-ingurunera moldatzea ahalbidetuko duen konfiantzazko eta afektuzko giro bat sortu behar da.
- Haurraren eskolatzea ikastetxearen aniztasuna aberastuko duen elementu positibotzat hartu behar da.

### **IKASTETXAREN INPLIKAZIOA**

Ikastetxeak beharrezkoak diren baliabide pertsonalak eta materialak kontuan hartuz inplikatu beharko luke.

Ikastetxeko irakasleek bi urtekoen gelako tutorearekin lankidetzan aritu eta honekin erantzukizun batzuk elkarbanatu beharko lituzkete. Haurrek duten erreferentzia argi bat izateko premiari erantzuten dion irizpideak nagusitu behar du; hau da, batez ere beren eskolatzearen hasieran behar duten segurtasun afektibo hori bereganatzeko baliagarria izango zaien erreferentzia argi bat izateko premiari erantzuten dion irizpideak.

Lankidetzaren behar batez ere une zehatz batzuei dagokie:

- Egokitzeko aldia.
- Higiene-azturak, esfinterrak kontrolatzeko azturak eta abar bereganatzeko unea.
- Psikomotrizitate-gelan eskaini behar den laguntza (oinetakoak jantzi eta kentzea).
- Eskolaz kanpoko ekintzak.
- Lehen jolasgaraiak.
- Jantokia.
- Sarrerak eta irteerak. Autobusa.
- Hezkuntza-premia bereziei eman beharreko laguntza.

Argazki 39

## **10- FAMILIAREN ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANAK.**

2 urteko haurren bizitzako inguruneak familia eta haur-eskola dira. Beren globalitatea errespetatzeko eta proposatu diren helburuak lortzeko baliabide gisa, harreman estu bat sustatu eta ahalbidetu behar da bi erakunde horien artean.

Jadanik aipatua dugu ikastetxeak familiari eman diezaiokeen informazioa bezain garrantzitsua dela familiak berak irakasleei eman diezaikeena. Informazio truke hau, bi alderdientzat esanguratsua eta garrantzitsua izan dadin eta haurren hezkuntzan eragina izan dezan, sistematizatu egin behar da.

Eskolan egindako ebaluazioa familiei jakinarazi behar zaie. Gorago aipatutako Ebaluazio-Aginduan (EHAA 1993ko maiatzaren 5a) adierazten da zein garrantzitsua den irakasle-talde bakoitzak ebaluazio hori elkarbanatzeko modurik egokiena zein den erabakitzea.

**Familiantzako informazioa** errazten duten tresnen artean **txostenak** nabarmentzen dira. Irakasle bakoitzak, gelako ohiko behaketetan oinarrituz, txosten bat osa dezake haur bakoitzaren lorpenei buruz. Txosten hauek beti positiboki idatzita egongo dira, haurraren ahaleginak eta lorpenak azpimarratuz; gainera, hezkuntzaren esku-hartzea berrorientatzeko baliagarriak izango dira eta, hala badagokie, familiarena ere.

Irakasle-talde bakoitzak erabakiko du zenbat txosten egin, non artxibatu, horietako bat familiari emango zaion ala ez eta abar.

**Familiaren eta eskolaren arteko elkar-trukea** errazteko, ondokoak nabarmenduko ditugu:

- Familia bakoitzarekiko aldizkako kontaktua.
- Familia guztiekiko aldizkako kontaktua.
- Eguneroko kontaktua.

### **Familia bakoitzarekiko aldizkako kontaktua.**

Garrantzitsua da ikasturteko une desberdinetan familia bakoitzekiko topaketa sistematikoak sustatzea, horretarako **ELKARRIZKETA erdiegiturateuaren** teknika erabiliz. Elkarrizketa hauetan, prestatuta egon arren malgua eta erdi irekia den gidoi baten bidez, gurasoei lasai hitz egitera behartzen zaie, beren ekarpenak baloratzea eta hezkuntza-koherentzia gordetzera gonbidatuz.

### **Familia guztiekiko aldizkako kontaktua.**

Gutxienez hiruhilean behin gurasoen batzarrak ospatzea komeni da. Hauetan IPCren eta IIPren alderdi orokorreko buruzko informazioa, proposatu diren helburuei lotutako alderdien informazioa, eduki garrantzitsuei buruzko informazioa, alderdi metodologikoei buruzkoa, familiengandik zer espero den eta hauei zer eskatzen zaien eta abar adieraziko da.

### **Eguneroko kontaktua**

Hau da familiaren, eskolaren eta haurraren arteko harremanen unerik garrantzitsuenak. Orain arte haur bakoitza protagonista eta harreta-gune izan da bi ingurune horietan; eta hau bi ingurune horiek lotzen dituen unea da. Kontaktua honetan eguneko gai garrantzitsuei ekingo zaie (jatorduak, loa, esfinterren kontrola, egokitzea, harremanak, bereganatzeak, lorpenak, zailtasunak...). Eguneroko unean honetan **idatzizko informazio txiki** bat eman daiteke, aipatutako alderdi guztiak edo batzuk jasoko dituenak.

Garrantzitsua da **tutorea ikustera joateko eguna eta ordua** jartzea, horrela, familia bakoitzak ikastetxera bere borondatez joateko aukera izan dezan, informazioen bat eskatzeko nahiz emateko.

Argazki 40

## BIBLIOGRAFIA

- BARTOLOMÉ. R. Y OTROS. ( 1993). *Educador infantil*. Madrid: Interamericana. mcgraw-hill.
- BRUCE L. BAKER Y OTROS. *¿ Cómo enseñar a mi hijo?. El control diurno de los esfínteres*. Madrid: Pablo del Río.
- CELESTE, B.(1990). *El primer año de escolarización. El niño de dos años llega a la escuela*. Madrid. Ed. Narcea.
- EUSKO JAURLARITZA (1992). EAEko OCD. Haur Hezkuntza. Gasteiz.
- SAINZ. A. Y OTROS (1996). *Las necesidades educativas especiales en el segundo ciclo de Educación Infantil*. (Argitaratzeko). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- LLEIXA ARRIBAS. T. (1990). *La educación infantil 0-6 años*. ( 3 liburuki). Barcelona: Paidotribo.
- MOREAU DE LINARES. *El jardín maternal. Entre la intuición y el saber*. Ed. Paidós.
- TAVERNIER, R. (1.989). *La enseñanza entre los 2 y los 4 años*. Barcelona: Martinez Roca.
- VV.AA. *El inicio de la escolarización*. Bilbao: ADARRA.